Jardunaren garrantziagatik edo bestelako egoerengatik (urbanizazioarekin, lursail-banaketarekin, lagapenak ezartzearekin, antolamenduz kanpoko elementuekin, antolamendu-zailtasun bereziekin lotutako arazoak), gomendagarria denean, Udalak bidezkoak jotzen dituen antolamendu-tresnak, urbanizazioakoak edo lursail-banaketakoak egitea exijitu ahal izango du.

Baldintza horiek berak bete beharko dira lehendik dauden industriako, merkataritzako edo hirugarren sektoreko instalazioak zabaldu edo horietan eraiki nahi izanez gero.

## V TITULOA

### LUR EZ URBANIZAGARRIARI BURUZKO ARAUBIDEA

#### 78. artikulua. *Sailkapena eta zonakatzea.*

E-2 zenbakidun planoan definitutako lurzorua sailkatzen da lurzoru ez-urbanizagarritzat.

Lurralde- eta hirigintza-erregulazioari dagokionez, lurzoru ez-urbanizagarria (LEU) 11. artikuluan zerrendatutako kategorietan edo azpiguineetan zonakatzen da.

– Babes bereziko eremuak balio nabarmena dute naturaren eta zientziaren ikuspegitik, eta oso hauskortasun handia, berriz, bertako flora, fauna eta kultura direla-eta. Horregatik, hain zuzen, babes bereziko kategoria proposatzen da eremu horietarako. Horrek asko mugatzen ditu erabilerak. Babes bereziko eremuak E-2 zenbakidun planoan ageri dira, baita 1. eranskinen zerrendan ere.

– Ingurumena hobetzeko kategoriaren barruan daude:

\* Ingurumena hobetzeko orokorra: Degradazio-prozesuen eraginez ahalmen ekologikoaren zati handi bat galdu duten eremuak. Eremu horietan ingurumena lehengoratzeko lanak egin behar dira, haien kalitatea areagotzeko. Eremu degradatuak dira, lurzoru urria edo higadura-azterna nabarmenak dituztenak. Ahal bezain laster, ekosistema hobetzeko eta lehengoratzeko lanak egin behar dira, baliabide horren galera saihesteko. Kategoria horretan sartzen dira: lurzoru kutsatuak, betelan antropikoak eta meatzaritza-jardueraren eraginpeko eremuak (Arditurri eta Arlepo).

\* Lurzoru ez-urbanizagarrietan okupazio antropikoa duten eremuak, beren ezaugarriak direla-eta, ez dituzte lehen definitutako antolamendu-kategoria bakar baten ezaugarriak betetzen, presio antropikoagatik. Hemen barruan sartzen dira, besteak beste, azpiegituren ertzak, eta parkeak eta lorategiak lurzoru ez-urbanizagarrian.

– Mendiko eremuak azpikategoria hauek dituzte:

\* Basoak. Gune hauek, balio ekologiko potentziala izan dezaketean arren, ez dituzte natura-balio handiko ekosistemak biltzen. Dena den, basogintzarako balio nabarmena dute. Hemen sartutako eremuak arboladiari eusteko bokazio argia dute, gehienetan gaur egungo erabileragatik eta noizean behin bokazio-erabilerari lotutako arrazoiengatik (arriskuak, arroen babesa, etab.).

\* Lehengoratzeta. Eremu hauetan sasiak daude, antzinatek egin izan den abeltzaintza murriztean landareen bilakaeraz sortu direnak. Batzuetan, lurzoru gutxiko edo malda handiko eremuak dira. Hori dela-eta, gomendagarria da zuhaitziak edo

acera públicas perimetrales y acometidas a las infraestructuras generales de servicio, etc.) y la justificación del cumplimiento de las determinaciones de las Normas Urbanísticas y Ordenanzas Municipales. La no presentación de este estudio o su no aprobación por parte municipal (en base a la falta de cumplimiento en alguna de las cuestiones señaladas) será motivo de suspensión del trámite o denegación de las licencias de obras y de apertura.

El Ayuntamiento podrá exigir, cuando la entidad de la actuación u otras circunstancias así lo aconsejen (existencia de problemáticas ligadas a urbanización, parcelación, establecimiento de cesiones, elementos fuera de ordenación, especiales dificultades de ordenación), la redacción de los instrumentos de ordenación, urbanización o reparcelatorios que considere oportunos.

Estas mismas condiciones regirán en el caso de ampliación o nueva edificación en instalaciones industriales, comerciales y terciarias ya existentes.

## TÍTULO V

### NORMATIVA PARA EL SUELO NO URBANIZABLE

#### Artículo 78. *Clasificación y zonificación.*

Se clasifica como Suelo No Urbanizable el definido en el plano n.º E-2.

El Suelo No Urbanizable (SNU) se zonifica, a efectos de regulación territorial y urbanística, en las categorías o subzonas enumeradas en el art. 11.

– Constituyen zonas de Especial Protección aquellas áreas que presentan valores relevantes de carácter natural y científico y una muy elevada fragilidad por la presencia de manifestaciones florísticas, faunísticas y/o culturales que han sido el motivo para proponer sobre ellas una categoría que determine amplias restricciones de uso. Las zonas de Especial Protección se señalan en el plano n.º E-2 y en el listado del anejo 1.

– Constituyen la categoría de Mejora Ambiental las zonas siguientes:

\* Mejora Ambiental General, aquellas zonas, que producto de procesos de degradación, han perdido buena parte de su potencial ecológico, y en las que es preciso acometer labores de restauración ambiental con el fin de conseguir incrementos de la calidad de las mismas. Se trata de zonas degradadas, con escaso suelo o con grandes muestras de erosión actual, en las que hay que realizar con la mayor brevedad posible labores de mejora y restauración del ecosistema con el fin de evitar que continúe la pérdida del recurso. Se incluyen en esta categoría los suelos contaminados, los rellenos antrópicos y las zonas afectadas por la actividad minera (Arditurri y Arlepo).

\* Las áreas de ocupación antrópica en suelo no urbanizable, son zonas que por su naturaleza, en lo que a la presión antrópica se refiere, no mantienen las características de ninguna de las categorías de ordenación definidas. Se incluyen aquí márgenes de infraestructuras, parques y jardines en SNU, etc.

– Las zonas de Monte presentan las subcategorías siguientes:

\* Forestal. Se trata de áreas que aun pudiendo poseer un valor ecológico potencial, no incluyen ecosistemas de alto valor naturalístico, siendo sin embargo significativo su valor derivado del manejo forestal. Incluye aquellas zonas que, preferentemente por su uso actual, y en ocasiones por razones de vocación de uso (riesgos, protección de cuencas, etc.), presentan una clara vocación para mantener una cubierta arbolada.

\* Regeneración. Engloba zonas de matorral derivadas de la evolución vegetal tras la disminución de la carga ganadera que soportaban. En ocasiones, estas zonas poseen escaso suelo o elevada pendiente y ello conlleva la recomendación de

arboladi isolatuak landatzea; alde batetik, arriskuak murrizteko; eta bestetik, abereen joan-etorria errazteko.

\* Mendiko larreak. Belardi lauak eta trinkoak dira, kota altuetan kokatuak eta abeltzaintzako ustiapen trinkoa dutenak, urtaroaren arabera. Artzaintzako kultura-tradizioari lotuta daude. Mendiko eremuak ere sartzen dira, non larreak berreskuratu diren belar-sastrakak kenduz edo beste metodo batzuen bidez, eta baita berriki jarritako larreak ere.

– Nekazaritzako eta abeltzaintzako eremuek eta landazabalek azpikategoria hauek dituzte:

\* Nekazaritzako erabilera estrategikoko azpikategoria. Nekazaritza-sektorearentzat ikuspegi estrategikotik garrantzia duten eremuak dira; hortaz, lehentasunezkoa jotzen da eremu horietan erabilera horiei eustea, beste erabilera batzuen aurrean. Multzorretan sartzen dira bai gaitasun agrologiko handieneko lurzorua bai nekazaritza-ustiapenen lurzorua, sektorearentzat estrategiko jotzen badira haien modernitatea, errentagarritasuna edo iraunkortasuna direla-eta. Nekazaritza-abeltzaintzako eta landazabaleko paisaiak eratzen dituzten ingurumen-unitateak hartzen ditu, eta horien barruan, haien produktibitate handia kontuan hartuta, I, II edo III Nekazaritza Mailako Lurzorua sartzen dira, eta lurzoru alubial sakonak, % 12 baino gutxiagoko maldarekin. Bat dator osorik nekazaritzako eta abeltzaintzako LAPren kategoria homonimoarekin.

\* Trantsizioko landa-paisaiaren azpikategoria. Aurreko azpikategoriako eremuekin alderatuta, ekoizpen-ahalmen txikiagoko eremu landatuak dira (malda handiagokoak), edo belardiek eta haiekin mosaikoa osatuz ageri diren baso-tarte txikiak estalitako landazabaleko eremuak. Balio estrategiko handiko eremuei edo baso-eremu zabalei atxikita egoten direnez, oro har, bi erabilera horietarako joera dute. Bertan sartutako ingurumen-unitateek nekazaritza-abeltzaintzako eta landazabaleko paisaiak eratzen dituzte, eta lehen sektoreko ekoizpen-irizpideen arabera definituta daude, nekazaritza-ekoizpena dela-eta.

\* Azaleko uren babeserako LEU» dira Oiartzungo udalerriko ur-ibilgurei dagozkien espazio-tarteak, berariaz jasotakoak EAeko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeako LAPn.

– Naturagune babestuak udalaz gaindiko ingurumen- edo lurralde-legeziek zehaztutako babes-mailaren bat duten eremuak dira. «Aiako Harria parke naturala» naturagune babestuen barruan sartutako udal-lurzoria da. Horren erabilera-araudia Natura Baliabideak Antolatzeako Planak ezarritako zehaztapenen barruan sartzen da, Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzendariaren barruan (EKPZ) Araudi hori egokitu daiteke, etorkizuneko KBE adierazpenaren arabera.

– Antolamenduari gainjarritako baldintzak dira E-2 planoan definituta daudenak. Gainerako antolamendu-kategoriei gainjartzen zaizkie, eta jarduera jakin batzuk garatzeko modua muga dezakete, kasu bakoitzean egon daitekeen arriskuaren arabera. Araudi honen 90. artikuluan araututako baldintzak dira.

79. artikulua. Lurzoru ez-urbanizagarriko erabilera eta jardueren erregulazio orokorra.

Honela sailkatzen dira lurzoru ez-urbanizagarriaren erregulaturako erabilerak eta jarduerak:

– Kontserbatzeko eta lehengoratzeko erabilerak eta jarduerak.

– Aisialdiko eta turismoko jarduerak.

– Nekazaritzako erabilerak.

– Abeltzaintzako erabilerak.

favorecer la implantación de bosquetes o arbolado aislado que, por un lado, limiten los riesgos y, por otro, favorezcan el manejo del ganado.

\* Pastos montanos. Se trata de aquellos céspedes rasos y densos situados en cotas altas, con un aprovechamiento ganadero intenso, aunque estacional, y asociados a una cultura pastoril tradicional. También se incluyen las zonas de montaña en las que se han realizado mejoras de pastos mediante desbroce u otros métodos o bien pastizales recientemente implantados.

– Las zonas agroganaderas y de campiña presentan las subcategorías siguientes:

\* Subcategoría uso agrario estratégico. Incluye zonas consideradas desde una perspectiva estratégica para el sector agrario, de manera que su mantenimiento y su preservación frente a otros usos se consideran prioritarios. Se integran tanto los suelos con mayores capacidades agrológicas como los terrenos de explotaciones agrarias que, por su modernidad, rentabilidad o sostenibilidad, se consideran estratégicas para el sector. Comprende las Unidades Ambientales conformantes de paisajes agroganaderos y de campiña entre los que se incluyen, en atención a su alta productividad, Suelos de Clase Agrológica I, II ó III, y suelos aluviales profundos en pendientes inferiores al 12%. Se corresponde íntegramente con la categoría homónima del PTS agroforestal.

\* Subcategoría Paisaje rural de transición. Se trata de zonas cultivadas de menor capacidad productiva que la subcategoría anterior (mayores pendientes) o de áreas de campiña cubiertas por prados y pequeños rodales forestales en mosaico con aquellos. Se encuentran en inmediato contacto con zonas Agroganaderas de Alto Valor estratégico o con amplias Zonas forestales, tendiendo vocacionalmente su uso, en general, hacia uno de estos dos sentidos. Comprende las Unidades Ambientales conformantes de paisajes agroganaderos y de campiña definidos por criterios de productividad primaria debido a su productividad agraria.

\* Se califican como «SNU de Protección de Aguas Superficiales» las franjas espaciales correspondientes a los cursos de agua del término municipal de Oiartzun expresamente recogidos en el PTS de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV.

– Los Espacios Naturales Protegidos son aquellos que tienen algún grado de protección establecido mediante figuras determinadas en legislación ambiental o territorial supramunicipal. Comprende el suelo municipal incorporado dentro del ENP «Parque Natural de Aiako Harria», cuya regulación de usos se circunscribe a las determinaciones establecidas en el Plan de Ordenación de Recursos Naturales (PORN), en el Plan Rector de Uso y Gestión (PRUG) Esta regulación es susceptible de adaptación en función de su futura declaración como ZEC.

– Son Condicionantes Superpuestos a la Ordenación, aquellos que se definen en el plano E-2 y que operan superponiéndose a las otras Categorías de Ordenación, limitando la forma en que se pueden desarrollar determinadas actividades según el tipo de riesgo que se presenta en cada caso. Se trata de los condicionantes regulados en el artículo 27 de la presente normativa.

Artículo 79. Regulación genérica de usos y actividades en Suelo No Urbanizable.

Los usos y actividades regulados en Suelo No Urbanizable se clasifican en:

– Usos y actividades de carácter conservacionista y regenerador.

– Usos de carácter recreativo turístico.

– Usos de carácter productivo primario agrícola.

– Usos de carácter productivo primario ganadero.

- Basozaintzako erabilerak.
- Eraikuntzako erabilerak.
- Industriako erabilerak.
- Azpiegiturak eta ekipamenduak.

**80. artikulua.** *Kontserbatzeko eta lehengoratzeko erabilerak eta jarduerak.*

Plan honen helburuetarako, kategoria honen barruan daude erabilera eta jarduera hauek:

1. Babes integralari bideratutako erabilerak.

Erabilera eta jarduera horien xedea ingurumen-unitate bakoitzaren berezko ezaugarriak zaintzea da, giza esku-hartzerik gabe, edo esku-hartze hori partziala eta lehentasunez zientifikoa eta kulturala izanik. Bokaziozko erabilerak dira babes berezia jaso dezaketen guneetan.

2. Lehengoratze ebolutiborako lanak / Ingurumen-hobekuntza.

Lan hauen bidez, hondatutako ingurumen-unitate bat hasierako egoerara itzuli nahi da, edo ustez balio handiagoa duen beste oreka-egoera batera iritsi nahi da. Jakina, ingurumen-unitatea lehentasunez definitzen duen irizpidearen baitan zehaztuko dira horrelako lanak.

Lan horien artean ditugu, besteak beste: ebaketa hautatuak; artzaintza kontrolatua; garbiketa; landare jakinak kentzea; izurriteak eta gaitzak tratatzea; basotzeen itxiturak egitea; ezponden birmoldaketak, paisaia eta ekologia hobetzeko prozesuak bultzatzeko egiten direnean; hidroereiteak; etab.

3. Jarduera zientifikoak eta kulturalak.

Inguruneari lotutako jarduerak dira, eta, besteak beste, ikerketa zientifikoak egiteko, kultura ezagutarazteko eta ingurumen-herkuntza zabalitzeko xedea dute. Ez dute inoiz ingurunea aldatzen.

Hala behar izanez gero, jarduera horien ondorioz sortutako azpiegiturak edo/eta ekipamenduak jarduera zientifikoan eta kulturalen berezko harrera-ahalmenetik kanpo aztertuko dira.

4. Basozaintzako trataerak.

Jarduera hauek landaredia kontserbatzeko eta zaintzeko egiten dira. Horien artean, landareen balioa areagotzen eta arrisku-faktoreak gutxitzen dituztenak dira garrantzitsuenak.

Basoko lurren ustiapena edo hobekuntza xede duten jarduera guztiak biltzen dira. Horrelakotzat hartutako lurrik zahartzak edo sastrakak dituzte edo izan ditzakete, ez dira erabiltzen nekazaritza-landaketetarako eta ez daude hiri-lurzoruan kokatuak.

Oro har, baso-jarduerak besteetatik bereizten dira eskuratutako produktu nagusia, egurra, berriztagarria delako, tratatzen ari diren landare-espezieak denbora asko behar dutelako txandakatze eta jarduera horiek ingurumenean eragin jakinak izan ditzaketelako, alegia: uretako behealdean inguruan kokatutako lurretan kalteak edo onurak egitea, animalien bizitzari eustea, aisialdiari lotutako onurak ekartzea (ibilaldiak, bigarren mailako produktuak biltzea, ehiza eta arrantza), etab.

Horregatik, baso-masek, maila aldakorrean, hainbat babes-eta ugalketa-funtzio betetzen dituzte.

Baso-jarduera horiek oso anitzak izan daitezke zuhaitz baten zikloan, hala nola basoa bera landatzeko egin beharrekoak, basoaren osasunari, babesari, ustiapenari eta hobekuntzari lotutakoak, eta basoa eraberritzeko egiten direnak.

Horien artean, honako hauek sartzen dira: a) Basoko jarduerari lotutako kultura-ekimenak (basoaren lurretik eginiko lanak, hala nola mugatzea, laboratzea, zuzentzea, garbitzea, eta lan-

- Usos de carácter productivo primario forestal.
- Usos de carácter edificatorio.
- Usos de carácter industrial.
- Usos de carácter infraestructural y de equipamiento.

**Artículo 80.** *Usos y actividades de carácter conservacionista y regenerador.*

A los efectos de este plan se engloban dentro de esta categoría los siguientes usos y actividades:

1. Usos encaminados a la protección integral.

Usos y actividades dirigidos al mantenimiento de las características diferenciales de cada unidad ambiental, sin práctica intervención antrópica o siendo esta de carácter parcial y prioritariamente científico cultural. Estos usos son vocacionales en las áreas susceptibles de recibir una protección especial.

2. Labores de regeneración evolutiva / Mejora ambiental.

Labores encaminadas a reconducir una unidad ambiental deteriorada a su situación primigenia o hacia otro estado de equilibrio supuestamente más valioso. Obviamente dependerán en su formulación, del criterio prioritario definitorio de la Unidad Ambiental.

Se incluyen en estas labores las cortas selectivas, pastoreo controlado, limpieza, eliminación selectiva de la vegetación, tratamiento de plagas y enfermedades, cierres de regeneración, remodelación de taludes siempre que éstos se realicen para favorecer los procesos de mejora ecológica y paisajística, hidro-siembras, podas selectivas, etc.

3. Actividades Científico - Culturales.

Se trata de actividades vinculadas al uso del medio para investigación científica, difusión cultural, educación ambiental etc., sin que en ningún caso supongan modificaciones del medio donde se desarrollan.

Las infraestructuras y/o equipamientos que en su caso pudiesen derivar del ejercicio de estas actividades se considerarán al margen de la capacidad de acogida de las propias actividades científico-culturales.

4. Tratamientos silvoculturales.

Actividades encaminadas a la conservación y cuidado de las masas vegetales incidiendo en aquellas que incrementen su valoración potencial y disminuyan factores de peligrosidad y riesgo.

Incluye todas las actividades que tienen como objeto la mejora o aprovechamiento de los terrenos forestales, considerando así a los terrenos ocupados o susceptibles de ser ocupados por masas arboladas o arbustivas, no objeto del cultivo agrario ni situados en suelo urbano.

En general, las actividades forestales se distinguen de otras por el carácter renovable del principal producto obtenido, la madera, por los prolongados turnos de las especies vegetales objeto de tratamiento y por las implicaciones medioambientales que pueden tener dichas actividades: daños o beneficios en otros terrenos situados aguas abajo, sostenimiento de vida animal, beneficios de carácter recreativo (paseo, recogida de productos secundarios, caza y pesca), etc.

Por todo ello, las masas forestales cumplen, en grado variable, distintas funciones protectoras y productivas.

Estas actividades forestales pueden ser muy diversas a lo largo del ciclo de un arbolado, abarcando las necesarias para la instalación de la propia masa, para la sanidad, protección, aprovechamiento y mejora del arbolado o para la renovación del suelo forestal.

Entre estas se incluyen: a) Prácticas culturales relacionadas con la actividad forestal (Labores realizadas sobre el suelo forestal como acotado, laboreo, fertilización, enmiendas, des-



dare hondakinak kentzea, etab; basoko zuhaitzetan eginiko lanak: landatzea, ereitea, eraberritzeko ebaztea, haziak jasotzea, etab); b) Basoa kudeatzeko eta hobetzeko jarduerak (ebaketak, hobetzeko ebaketak, basoko masaren inbentarioa, etab.); c) Basoko produktuak ateratzeko edo erazteko jarduerak (ebaketa, produktuen sailkapena, errepidera eramateko garraioa, etab.); d) Basoko jarduerari zuzenean lotutako instalazioak eta eraikuntzak (tresnak, makinak eta produktuak zaintzea eta biltzea); e) Azpiegiturak (basoko bideak eta horiei erantsitako instalazioak, hala nola hesiak eta ubideak, egurra biltzeko eta prozesatzeko biltegiak edo parkeak, suteen zaintzarako instalazioak, suebakiko guneak eta zerrendak, itxiturak eta hesiak, eta titulartasun publikoko basoak zaintzen diharduten langileei ostatu emateko instalazioak).

Lur-mugimenduak: trataera hauen laborantzak, ateratzeko sareak, basoko bideak eta herrestatzeak ahal bezain beste mugatuko dira, eta soilik behar-beharrezkoak direnean egingo dira. Lurpea zaintzeko lanak ez dira basoko trataerako lanen barruan sartzen; izan ere, Oiartzungo basoetan ez dira onartzen horrelako erabilerak.

Zorroztasunez murriztuko dira trataera fitosanitarioak eta substantzia kimiko landuen bidezko ongarritzeak, baita bakterioetan, onddoetan eta tratatu beharreko espezie bakoitzerako izaki bizidun espezikikoan oinarritutako biozida «naturalak» ere. Izan ere, ekosistemaren kontserbazio-egoera onean eragiten dute, hala tratatutako masan, nola ingurunean.

Erabilera honetan sartzen da lehentasunez irizpide ekologikoen arabera hautatutako bertako zuhaitz-espezieak ereitea, landatzea eta kudeatzea. Baliabide horien ustiapen ekonomikoa egin daiteke, baldin eta modu ordenatuan egiten bada eta naturaren zaintzaren eta higadura-gertakarien menpe badago.

Biodibertsitatea hobetzeko lanak: bertako espezieak erabiltzea, basoko landareen flora-segizioaren espezieak ereitea edo landatzea, zuhaitz zaharrak edo egur hila mantentzea eta basoko azalera handietan soilguneak izatea. Horiek guztiak lehentasunez hartzen dira basoko trataeren multzoan.

Trataera horien artean, sartu ez ezik, bultzatu ere egin behar dira gaur egungo landare-hesiak mantentzea eta ingurune hauetako berezko landareen bidez hesi berriak egitea mugetan, hegietan, malda handiko edo higadura-arriskuko eremuetan, etab.

Bizitegi-erabilera ez da basoko ustiapenaren erabilera lagungarritzat hartzen, titulartasun publikoko basoen zaintzari atxikitako basoko etxebizitzaren kasuan izan ezik.

Kasu guztietan, erabilera horren baimena Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauak eta administrazio eskudunak eginiko arau osagarriek ezarritakoaren mende geratuko da.

#### 5. Populazioen jarraipena eta kontrola.

Beharrezkoak diren ikerketa-jarduerak egingo dira, udalerriko lurraldean dauden animalia- eta landare-espezieak ezagutzeko eta kudeatzeko. Horrelakoetan, ekosistemen oreka ekologikoa bermatzen duten metodoak aplikatuko dira.

#### 6. Paisaia lehengoratzea.

Horren barruan sartzen dira iraganeko eragin batek kaltetutako eremu bat lehengoratzeko jarduerak, bai eta ingurumen-eragin negatibo berri bat saihesteko egindakoak ere. Horien bidez, ingurunea naturaltasunez edo erosotasun estetiko horritu nahi da.

broces y eliminación de restos vegetales, etc.; labores realizadas sobre el vuelo forestal: plantación, siembra, cortas de regeneración, recogida de semillas seleccionada, etc. b) Prácticas de gestión y mejora de la masa forestal (podas, cortas de mejora, inventario de la masa forestal, etc.); c) Prácticas de saca o extracción de productos de la masa forestal (tala, clasificación de productos, arrastre hasta la red viaria, etc.); d) Construcciones e instalaciones directamente vinculadas a la actividad forestal (almacenamiento y conservación de útiles, maquinaria y productos); e) Infraestructuras (Vías forestales e instalaciones anexas como barreras y pasos de agua, parques o depósitos de procesado y apilado de madera, instalaciones de vigilancia de incendios, áreas y fajas cortafuegos, cierres y vallas, e instalaciones dedicadas al alojamiento del personal dedicado al cuidado de las masas forestales de titularidad pública.

Los movimientos de tierras: laboreo, construcción de la red de saca, vías forestales y arrastres incluidos en estos tratamientos, serán restringidos en su máximo posible, limitándose estrictamente a casos de manifiesta necesidad. No se consideran como labores de tratamiento silvocultural las labores de subsolado que se estiman como uso no deseado para las masas forestales de Oiartzun.

Quedan estrictamente limitados los tratamientos fitosanitarios y de fertilización a base de sustancias químicas elaboradas o de biocidas «naturales», a base de bacterias, hongos y otros seres vivos específicos para cada especie a tratar, debido a su afección sobre el buen estado de conservación de los ecosistemas, tanto de la masa tratada como de su entorno inmediato.

Se consideran incluidas en este uso la siembra, plantación y/o gestión de especies arbóreas, autóctonas seleccionadas prioritariamente por criterios ecológicos. Es posible el aprovechamiento económico de estos recursos siempre que se realice de forma ordenada y supeditándose a la conservación de la naturaleza y a la corrección de fenómenos erosivos.

Las labores encaminadas a la mejora de la biodiversidad: fomento de la utilización de especies autóctonas, plantación o siembra de especies del cortejo florístico de la vegetación forestal, mantenimiento de los árboles añosos o madera muerta, y la presencia de claros en grandes superficies forestales, se considerarán como prioritarios dentro del conjunto de tratamientos silvoculturales.

Se incluyen y deben fomentar entre estos tratamientos el mantenimiento de los setos vegetales existentes en la actualidad, así como la incentivación de la creación de nuevos a base de vegetación autóctona propia de estos ambientes en lindes, ribazos, zonas de fuerte pendiente o riesgo de erosión, etc.

El uso residencial no se considera como uso auxiliar de una explotación forestal, salvo en el caso de viviendas forestales adscritas a la vigilancia de las masas forestales de titularidad pública.

En todos los casos la permisividad de este uso estará sujeta a lo así determinado en la Norma Foral 7/2006 de 20 de octubre, de Montes de Gipuzkoa, y normas adicionales emanadas de la Administración competente.

#### 5. Seguimiento y control de poblaciones.

Actividades de investigación necesarias para el conocimiento de las especies animales y vegetales presentes en el territorio municipal de cara a la gestión de las mismas, con la aplicación de los métodos que garanticen el mantenimiento del equilibrio ecológico de los ecosistemas.

#### 6. Regeneración paisajística.

Entendiendo por tal el conjunto de prácticas dirigidas bien a la restauración de un espacio afectado por cualquier tipo de impacto pretérito, o bien para evitar la generación de un efecto ambiental negativo nuevo, con el fin de dotar al entorno de mayores características de naturalidad o confort estético.

### 81. artikulua. Turismoko aisia-erabilerak eta -jarduerak.

Plan honen helburuetarako, kategoria honen barruan daude erabilerak eta jarduerak hauek:

1. Aisialdi estentsiboa. Mendi-ibiliak eta naturaren behaketa.

Gozamenerako jarduera honek aisialdiari, turismoari eta natura-ingurunearen gaineko heziketari eta interpretazioari lotutako xedeak ditu. Jarduera arinak dira, ekipamendu handirik behar ez dutenak, hala nola txangoak eta behaketak, ingurune fisikoan eragin gutxikoak. Oinezkoen igarotzea da, eta gutxienezko azpiegiturak edo egokitzapenak baino ez dira behar, esaterako, obra txikiak (errekastoen gaineko igarobideak, xenden seinaleztatzea, begiratokiak, etab.) Pasaian integratzen dira, eta hura zaintzen dute. Oro har, erabilerak honetatik kanpo geratzen dira bai eraikinak bai instalazioak eta errepide-sareko elementuak.

Erabilerak honi dagokion araudia jasota dago, gehien bat, 79/1996 Dekretuan, apirilaren 16koan, Euskal Autonomia Erkidegoan mendi-ibiliak antolatu eta normalizatzeari buruzkoan.

Kategoria horren barruan zikloturismoa sartzen da, bide, errepide eta pistetan egitera mugatutako kirol-jarduerak gisa.

2. Aisialdi intentsiboa.

Gozamenerako jarduerak hauen xedea aisia, turismoa, heziketa eta natura-ingurunearen interpretazioa dira. Aisialdiko eta/edo harrerako ekipamenduen bidez egiten dira, eta eremuak aisialdiko jardueretarako egokitu beharra eskatzen dute.

Erabileraren intentsitatearen arabera bi mota desberdintzen dira:

a) Aisialdiko guneak dira eta izaera iraunkorreko azpiegitura txikiak barneratu ditzateke, adibidez, aparkaleku txikiak, mahaiak, eserlekuak, barbakoak, iturriak, zerbitzu sanitarioak, haurrentzako jolasak, paperontziak, etab.

b) Eraikinen edo instalazio handiak eraikitzea suposatzen dutenak: campingak, golf-zelaiak, motordun ibilgailuentzako zirkuituak, etab.

3. Uretako jarduerak.

Kirol-jarduerak izan daitezke ala ez, eta Oiartzungo ibilguren uretan egiten dira.

Bitarteko naturalez bultzatutako jarduerak onartzen dira; ez, ordea, trakzio mekanikoa eta motor bidezkoa eskatzen dutenak.

4. Ehiza eta arrantza.

Jarduerak hauek dagozkien araudien arabera egiten dira. Horien artean, ez da sartzen urpeko arrantza.

Ehizari lotutako araudiak honako hauek dira: 1/1970 Ehiza Legea, apirilaren 4koa; 124/1990 Dekretua, maiatzaren 2koa, ehiza egiteko gaitasuna lortzeko prozedura arautzen duena; 1991eko ekainaren 6ko Agindua, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, ehiza egiteko gaitasuna egiaztatzeko probak arautzeko arauak ematen dituena; 117/1996 Dekretua, maiatzaren 21eko, EAEko ehiza-baimena arautzen duena; 227/1996 Dekretua, irailaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren ehiza-baimena arautzeari buruzko maiatzaren 21eko 117/1996 Dekretua aldatzen duena; urteko Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ehizarako baldintza orokorrak eta denbaldia finkatzen dituena; eta, 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.

Kirol-arrantzaren araudiak aplikagarriak zaizkion nazioarteko, estatuko, erkidegoko eta foruko legedietatik eratortzen

### Artículo 81. Usos y actividades de carácter recreativo turístico.

A los efectos de este plan se engloban dentro de esta categoría los siguientes usos y actividades:

1. Recreo extensivo. Senderismo y observación de la naturaleza.

Actividad de disfrute con fines de ocio, turismo, educación e interpretación del medio natural, en base a actividades blandas, sin equipamientos significativos: excursionismo y contemplación, poco incidentes en el medio físico. Implica el simple tránsito peatonal, que requiere un mínimo de infraestructura o acondicionamiento para su práctica como son pequeñas obras (pasos sobre arroyos, balización de sendas, miradores, etc.) que se presumen cuidadosas e integradas en el paisaje. En general, en este uso se excluyen tanto los desarrollos edificatorios como instalaciones o elementos de la red viaria.

La regulación de este uso está contemplada, en su mayor parte, en el Decreto 79/1996 de 16 de abril, sobre ordenación y normalización del senderismo en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se incluye en esta categoría el cicloturismo, considerado como actividad deportiva restringida en su uso a caminos, carreteras y pistas existentes.

2. Recreo intensivo.

Disfrute con fines de ocio, turismo, educación e interpretación del medio natural, en base a equipamientos de ocio y/o acogida que implican la adaptación de un espacio para actividades recreativas.

Se diferencian, según la intensidad de uso, dos tipologías de recreo intensivo:

a) La adaptación y uso de Áreas Recreativas, que pueden incluir pequeñas infraestructuras de carácter permanente, tales como pequeños aparcamientos, mesas, bancos, barbacoas, fuentes, servicios sanitarios, juegos infantiles, papeleras, etc.

b) Las actividades que implican la construcción de edificios o grandes instalaciones, tales como campings, campos de golf, circuitos para vehículos a motor, etc.

3. Actividades náuticas.

Actividades deportivas o no, que necesitan para su desarrollo el medio acuático de los cauces de Oiartzun.

Se incluyen las propulsadas por medios naturales, quedando exceptuadas explícitamente las que implican tracciones mecánicas y a motor.

4. Actividades cinegéticas y piscícolas.

Considerada como la práctica de estas actividades dentro de la reglamentación que la regula. No se incluye dentro de esta actividad la pesca subacuática.

Las regulaciones de la práctica de la caza se derivarán de la Ley de Caza 1/1970, de 4 de abril; el Decreto 124/1990, de 2 de mayo, por el que se regula el procedimiento para la obtención del requisito de aptitud para el ejercicio de la caza; la Orden de 6 de junio de 1991, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se dictan normas que regulan las pruebas de acreditación de la aptitud para el ejercicio de la caza; el decreto 117/1996, de 21 de mayo, por el que se regula la licencia de caza de la CAPV; el Decreto 227/1996, de 24 de septiembre, de modificación del Decreto 117/1996, de 21 de mayo, por el que se regula la licencia de caza de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y la Orden Foral anual por la que se fijan los períodos hábiles y condiciones generales de caza en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, y la Ley 42/2007 de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

Las regulaciones de la práctica de la pesca deportiva se derivarán de las legislaciones internacionales, estatales, auto-

dira. Bereziki aplikatuko zaizkio 216/1997 Dekretua, urriaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ibaietan arrantza egiteko baimena arautzen duena, eta urteko Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ur kontinentaletan arrantza egiteko baldintza orokorrak eta denboraldiak finkatzen dituena.

Ehiza eta arrantza kontinentaleko espezieen babesa araututa dago Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legearen IV. kapituluko 62. artikuluan.

Eraikuntza-jarduera guztiak erabilera honetatik kanpo gelditzen dira, hezkuntza-, dibulgazio- eta/edo zientzia-helburua dutenak izan ezik.

5. Katalogatutako espezieak osorik edo zatika biltzea.

Animalia- edo landare-espezieak edo horien zatiak eskuz biltzea sistematikoki, zientziako edo bildumazaletasuneko helburuekin.

6. Motor bidezko kirol-jarduerak.

Kirol-jarduerak izan daitezke ala ez, eta horiek egiteko motor bidezko trakzioa behar da (moto-kros, trial, mendi-ibilgailuak, 4x4, triziklo eta kuartriziklo motordunak, etab.).

Nolanahi ere, errespetatu egingo dira Foru Aldundiaren Ondarezko Mendietan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erabilera Publikoakotan motordun ibilgailuen zirkulazioa arautzen duen maiatzaren 2ko 29/1990 Foru Dekretuaren erabakiak.

82. artikulua. Nekazaritzako erabilerak.

Basokoak ez diren landare-baliabideen laborantzari zuzenean lotutako jarduerak hartzen ditu (belardien laborantza eta zurezkoen laborantza; baratzezaintza; lorezaintza; hazien, perretxikoen eta hidroponikoen laborantzak) Horien artean, honako hauek ditugu: lurra prestatzea laboreak eskuratzeko, kultura-laboreak eta -jarduerak barne; laborantzak biltzeko, aukeratzeko eta sailkatzeko eragiketak, garraiatzeko moduan jarri arte gero biltzeari edo kontsumitzeari begira; ura hartzea eta uraren intentsitate handiagoko aprobetxamendua egitea ureztatzen kasuan; eta, oro har, nekazaritza hobetzeko beharrezkoak diren landa-azpiegiturarako obrak egitea.

Kontzeptu horren barruan sartzen dira bai aire librean egitako nekazaritza-jarduerak, bai estalpean egindakoak (laborantza babestuak).

Plan honen helburuetarako, kategoria honen barruan daude erabilera eta jarduera hauek:

1. Produktu tradizionalen bilketa eta ustiapena.

Landare aromatikoak, ezta, sendabelarrak, ondoak eta perretxikoak eskuz biltzeko jarduerak dira.

2. Nekazaritzako ustiapenari lotutako jarduerak.

Horien artean, honako hauek sartzen dira: ura ateratzea ureztatzeko; landare-estalkia mantentzea; ongarritzea; fruta-arbolak landatzea, moztea eta inaustea; produktu fitosanitarioak erabiltzea; laborantzako luberritze iraunkorrak edo aldian behingoak egitea, eta betelanak eginez edo ura kenduz lurra drainatzea edo lehortzea (baldin eta, garrantzi ekologikoko hezegunea ez bada).

3. Nekazaritzako ustiapenari lotutako eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak.

a) Nekazaritzako jardueri zuzenean lotutako eraikinak eta instalazioak.

Honako hauek dira: tresnak eta produktuak biltzea eta kontserbatzea; nekazaritzako produktuak lehortzea, eraztea eta sailkatzea; pensuen egoitzak, fruta eta barazkiak egokitzea, laborantza ureztaturako instalazioak eta obrak (ureztatzeko

nómicas y forales que les sean de aplicación. Especialmente será de aplicación el Decreto 216/1997, de 7 de octubre, por el que se regula la licencia de pesca fluvial de la CAPV, y la Orden Foral anual por la que se fijan los períodos y condiciones generales de la pesca en aguas continentales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La protección de las especies en relación con la caza y la pesca continental quedan reguladas mediante el artículo 62 del capítulo IV la Ley 42/2007 de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

En este uso se excluye todo tipo de desarrollo edificatorio, a excepción de todos aquellos dedicados a equipamiento educativo, divulgativo y/o científico.

5. Recolección total o parcial de especies catalogadas.

Recolección manual sistemática de especies animales o vegetales o fragmentos de las mismas con fin científico, o de coleccionismo.

6. Actividades deportivas a motor.

Actividades deportivas o no, que necesitan para su desarrollo el empleo de tracción a motor (motocross, trial, vehículos todo-terreno, 4x4, triciclos y cuatriciclos motorizados, etc.).

En todo caso se respetarán las determinaciones del Decreto Foral 29/1990 de 2 de mayo, por el que se regula la circulación de vehículos a motor en los montes patrimoniales de la Diputación Foral y de Utilidad Pública del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Artículo 82. Usos y actividades de carácter productivo primario agrícola.

Se incluyen las actividades ligadas directamente con el cultivo de recursos vegetales no forestales (cultivos herbáceos y cultivos leñosos, horticultura, floricultura, cultivos de vivero, de setas y los hidropónicos): preparación de la tierra para la obtención de cultivos, incluyendo labores y prácticas culturales, operaciones de recolección, selección y clasificación de las cosechas dispuestas en condiciones de ser transportadas para su posterior almacenamiento o consumo, así como el aporte de agua y una mayor intensidad de aprovechamiento en el caso del regadío, junto con las obras de infraestructura rural necesarias para mejoras de la agricultura en general.

En este concepto se incluyen tanto las actividades agrícolas al aire libre como las que se realizan bajo cubierta (cultivos protegidos).

A los efectos de este plan se engloban dentro de esta categoría los siguientes usos y actividades:

1. Aprovechamiento y recolección de productos tradicionales.

Entendiendo como tal a la recolección manual de plantas aromáticas, miel, plantas medicinales, hongos y setas.

2. Prácticas relacionadas con la explotación agrícola.

Entre las que se consideran las siguientes: Extracción de agua para el riego; mantenimiento de la cubierta vegetal; abonado y fertilización; plantación de árboles frutales, talas y podas; uso de productos fitosanitarios; rotaciones-laboreo permanente u ocasional y drenajes o desecación a través del relleno o extracción de agua (siempre que no se trate de una zona húmeda de relevancia ecológica).

3. Construcciones, instalaciones e infraestructuras relacionadas con la explotación agrícola.

a) Construcciones e instalaciones directamente vinculadas a las actividades agrícolas.

Se entienden como tales las siguientes: Almacenamiento y conservación de útiles y productos; secado, extracción y clasificación de productos agrícolas; producción de piensos, acondicionamiento de fruta y vegetales, obras e instalaciones para

putzua barne); terrazak: baratze-mailak eraikitzea, baldin eta higadura-prozesuak saihesteko eta gutxitzeko egiten badira eta landaredi naturalak estalitako eremuei eragiten ez badie; eta, nekazaritzako produktuak biltzeko zabalgunekak, negutegiak eta baso nekazaritzako, apainketarako landare eta loreen ekoizpe-neko mintegiak.

b) Nekazaritzako produktuen lehen transformazioan laguntzeko eraikinak eta instalazioak.

Honako hauek sartzen dira: barazkien kontserbak, marmeladak eta konfiturak, sagardoa egiteko dolareak, eta ardoa nahiz txakolina egiteko upeltegiak.

c) Nekazaritzako ustiapenen jarduera osagarriak egiteko eraikinak eta instalazioak.

Jarduera osagarriak ustiapenean bertan egiten dira, nekazaritza-jardun nagusia osatzeko. Horien artean, honako hauek ditugu: ustiapenaren produktuak transformatzea eta zuzenean saltzea; ustiapenean lortutako nekazaritzako produktuak dastatzea; bertako produktuen gaineko eskulan-tailerrak egitea (saskigintza, zeramika, zurgintza, ogi-labeak, etab.); Naturaren eta Landa Ingurumenaren aisiari, gozamenari eta dibulgazioari lotutako jarduerak antolatzea (landa-hipikak, haur-parkeak, bertako landareen eta animalien erakusketak, etnografiako bildumak, etab.) Energia berriztagarria sortzeko azpiegiturak, funtsean auto-hornikuntzarako erabiliiko direnak: Agroturismoa (nekazal ustiapenean ostalaritza zerbitzua).

d) Izaera bereziko nekazaritza-jarduerak.

Nekazaritzako jarduera berezi bezala sartzen dira: mikorrizatutako landarearen bidezko boilur beltzaren laborantza; Kaliforniako zizare gorriaren hazkuntza, soberakinak aprobetxatzeko eta zizare humusa edo vermicomposta sortzeko; eta, onddoen hazkuntzak, batik bat, nekazaritza-industriaren, basogintzaren, papergintzaren eta animalien hazkundearen hondakinen gainean.

4. Nekazaritza ekologikoa.

Laborantza-sistema honen funtsezko helburua kalitate goreneko elikagaiak lortzea da natura-baliabideen bidez, ingurumena errespetatuz eta lurraren emankortasuna zainduz. Kanpo geratzen da sintesiko produktu kimikoen erabilera, nekazaritzagarapen iraunkorra bermatzeko.

5. Agroaldeak.

Nekazaritzako lursailen eremuak dira, laborantza intentsibo profesionalerako erabiltzen direnak. Lursail guztietarako komunak diren zerbitzu-hornidurak dituzte, eta gehienetan titulartasun eta sustapen publikoa dute.

83. artikulua. Abeltzaintzako erabilerak.

Abeltzaintzako jarduerak abere orearen hazkuntzari lotutakoak dira, larrugintzarako animalien hazkuntzan diharduten eta ehizako espeziak hazten dituzten abeletxeak barne. Horren barruan sartzen da ere lurra prestatzea larreak eta bazka-landareak lortzeko, baita artzaintza ere.

Plan honen helburuetarako, kategoria honen barruan daude erabilerak eta jarduerak hauek:

1. Abeltzaintzako ustiapenari lotutako jarduera kulturalak.

Bazka-laborantzari, belardiei eta larreei lotutako lanak dira: garbiketak egitea, fitosanitarioak aplikatzea, lurra goldatzea eta belar-espezieak haztea, ongarrizteak, bilketak, eskuz edo makinaz eginiko mozketak, eta siloratzeak.

agricultura de regadío (incluidas balsas de riego); terrazas: construcción de bancales, siempre que estos se realicen para evitar o minimizar procesos erosivos, y que no se afecte a zonas cubiertas por vegetación natural; playas de recogida de productos agrícolas, invernaderos, viveros de producción forestal, agraria, de plantas ornamentales y flores.

b) Construcciones e instalaciones destinadas a apoyar la primera transformación de los productos agrícolas.

Entre las que se incluyen: Producción de conservas vegetales, mermeladas y confituras; Lagares de elaboración de sidra y bodegas para producción de vino y txakoli.

c) Construcciones e instalaciones destinadas al desarrollo de actividades complementarias de la explotación agrícola.

Se consideran actividades complementarias, aquellas actividades realizadas en la propia explotación como complemento a la actividad principal agraria incluyendo entre ellas: Transformación y venta directa de los productos de la explotación; degustación de los productos agrarios obtenidos en la propia explotación; talleres artesanales de productos típicos del país (cestería, cerámica, ebanistería, hornos de pan, etc.); actividades recreativas relacionadas con el ocio, disfrute y divulgación de la Naturaleza y el Medio Rural (hípicas rurales, parques infantiles, exposiciones de plantas y razas autóctonas de animales, colecciones de etnografía, etc.) Infraestructuras de producción de energía renovable, fundamentalmente para auto-abastecimiento; Agroturismo (servicios de alojamiento turístico en la explotación agraria).

d) Actividades agrícolas de carácter especial.

Se incorporan como actividades agrícolas especiales la truficultura o cultivo de la trufa negra usando planta micorrizada; a la Lumbricultura/lombricultura, o cultivo de lombriz roja californiana para aprovechamiento de excedentes y generación de humus de lombriz o vermicompost; y al cultivo de hongos fundamentalmente sobre residuos de agroindustria, industria forestal, papelera, y de la crianza de animales.

4. Agricultura ecológica.

Entendida como un sistema agrario cuyo objetivo fundamental es la obtención de alimentos de máxima calidad respetando el medio ambiente y conservando la fertilidad de la tierra, mediante la utilización de los recursos naturales. En esta práctica se excluye el empleo de productos químicos de síntesis para garantizar un desarrollo agrario sostenible.

5. Agroaldeak.

Se consideran como tales a los «polígonos» de parcelas agrícolas de cultivo intensivo profesional, con dotaciones de servicios comunes a todas las parcelas y generalmente de titularidad y promoción pública.

Artículo 83. Usos y actividades de carácter productivo primario ganadero.

Se consideran como ganaderas aquellas actividades relativas a la cría de todo tipo de ganado, incluidas las granjas dedicadas a la cría de animales para peletería y la producción de especies cinegéticas. Comprende también la preparación de la tierra para la obtención de pastos y cultivos forrajeros, así como el pastoreo.

A los efectos de este plan se engloban dentro de esta categoría los siguientes usos y actividades:

1. Prácticas culturales relacionadas con la explotación ganadera.

Se consideran como tales el manejo de los cultivos forrajeros, praderas y pastizales: Desbroces, aplicación de fitosanitarios, arado de tierra y siembra de especies pratenses, abonados, recolecciones y siega manual o mecanizada, y ensilados.

Larrerako xedea duen (abereen larrea eta bazkaren bilketa hartzen du) luraren goldatzeak ahalik eta gehien mugatu behar dira egungo laborantzeara, nekazaritzarako ez diren lurrik goldatzea eragotziz.

2. Abeltzaintzako ustiapenari lotutako eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak.

a) Abeltzaintzako jardueri zuzenean lotutako eraikinak eta instalazioak.

Horren barruan honako hauek sartzen dira: ukuiluak; jz-teko gelak eta esnea kontserbatzeko lokalak; simaurtegiak eta minda-putzuak; tresnak eta produktuak biltzea eta kontserbatzea; pentsuen eta bazken siloak (abereentzako zerealak, aletarako lekadunak eta pentsuak gordetzeko eraikinak. Fabrika-koak edo metalezko xaflez eginak izan daitezke); itxiturak eta hesiak (lurzoruaren erregimenari buruzko legediarekin bat eginda); askak eta haien hartuneak; jateko lekuak (larratzen diren lurretan bertan abereei beren elikaduraren osagarriak diren pentsuak eta bazka emateko eraikinak); tresnak eta makinak gordetzeko eraikinak; instalazio sanitarioak eta maneiuari lotutakoak (instalazio horietan parasitoen aurkako trataerak, txertaketak eta hainbat eragiketa egiten dira ugalketari, abereen sailkapenari, nasei lotutakoak. Elementu hauek guztiak edo hauek batzuk dituzte: eskortak, tratamendurako eskortak, parasitoen aurkako bairuak eta nasak). Askek, bazkatokiek eta antzekoek instalazio desmontagarriak izan beharko dute, obra-eraikuntzako elementurik gabe eraikiak.

b) Abeltzaintzako produktuen lehen transformazioan laguntzeko eraikinak eta instalazioak.

Horien artean, honako hauek ditugu: gaztandegiak eta gainerako esnekiak; haragiak, hestebeteak eta horien produktu deribatuek egitea; eta, ezta eta erleen beste produktu batzuk ontziratzea.

c) Abeltzaintzako ustiapenaren jarduera osagarriak egiteko eraikinak eta instalazioak.

Jarduera osagarriak ustiapenean bertan egiten dira, nekazaritza-jardun nagusia osatzeko. Horien artean, honako hauek ditugu: ustiapenaren produktuak transformatzea eta zuzenean saltzea; ustiapenean lortutako nekazaritzako produktuak dastatzea; bertako produktuen gaineko eskulan-tailerrak egitea (saskigintza, zeramika, zurgintza, ogi-labeak, etab.); naturaren eta landa-ingurumenaren aisiari, gozamenari eta dibulgazioari lotutako jarduerak antolatzea (landa-hipikak, haur-parkeak, bertako landareen eta animalien erakusketak, etnografiako bildumak, etab.) Energia berriztagarria sortzeko azpiegiturak, funtsean auto-hornikuntzarako erabiliko direnak.

d) Abeltzaintzako jarduera bereziak.

Honako hauek sartzen dira: erlategiak; nekazaritza-ustiapen alternatiboak (nekazaritza-ustiapen alternatiboak jartzeko, kontuan hartuko da gune zoologiko gisa eragiten dien araudia); ehiza-abeletxeak (ehiza-abeletxeen sailkapena eta araudia jasota dago haragiko hegazti-hazkuntza antolatzeari buruzko irailaren 16ko 1084/2005 Errege Dekretuan eta horren arau osagarriak ematen dituen 1975eko uztailaren 15eko Aginduan); eta arraintegiak.

3. Abeltzaintza mendietan.

Aziendak edo abelburuak larrean, basoetan eta sastraken edo belardi naturalen azaleretan aske ibiltzeari esaten zaio.

Jarduera horren araudiaren oinarriak hauek dira: 34/1989 Foru Dekretua, ekainaren 6koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan

El arado de la tierra con fines pascícolas (las que comprenden el pasto del ganado y la recolección del forraje) deben restringirse, lo máximo posible, a los cultivos ya existentes, impidiendo que se roten superficies no agrarias en la actualidad.

2. Construcciones, instalaciones e infraestructuras relacionadas con la explotación ganadera.

a) Construcciones e instalaciones directamente vinculadas a las actividades ganaderas.

Edozein uda-teknikari edo udaltzain obretara askatasunez sartu ahal izango da, horietan lan egiten den bitartean, lizentzian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

4. Informazio publikoa:

Oiartzungo udalerrian egiten den edozein obraren sustatzaileak, irauten duen bitartean honako informazioa emango du:

- Obraren kontzeptua.
- Sustatzailea.
- Aurrekontua.
- Obra baimenaren data.
- Lanen eraikitzailea.
- Obra zuzendaritza.
- Obraren bukaerako data.

Udal zerbitzu teknikoek homologaturiko kartelean agertuko da aipatu informazioa eta leku ikusgarrian jarri beharko da. Lanak etxebizitza edo lokalen barrenetan egiten direnean, kartela eraikinaren atariaren barnean jarri ahal izango da.

*110. artikulua. Eraikinen lehen erabilera eta bizigarritasuna.*

Antolamendu juridikoaren arabera garatu beharreko jardueri buruzko espedienteen kaltetan izan gabe, eraikinak edo instalazioak lehen aldiz erabiltzeko eskaerarekin batera, 105 artikuluan adierazitako gutxieneko baldintzaz gain, ondoko dokumentua hauek aurkeztu beharko dira:

- Obra-amaierako ziurtagiria, obra-zuzendariak luzatutakoa.
- Obraren azken kitapenaren aurrekontua, obra zuzendariak sinatutakoa.
- Eraikinak hiri-zerbitzu orokorretara, hala nola, ur, saneamendu, argiteria, elektrizitate, gas, telefono eta abarretara dituen hartuneen behin betiko egoeraren planoak.
- Instalakuntzen boletinak eta beraiei loturiko frogen protokoloa, instalazio elektriko zein telekomunikazioarenak, hala balegokio.
- 105. artikulua zehazten dituen argazkian eraikinen edo instalazioen kanpoaldekoak izango dira, lizentziaren titularrak edo obra-zuzendariak atzealdean sinatutakoak, horiek errealtatearekin bat datozela adierazita.

Enpresa hornitzaileek -energia elektrikoa, ura, saneamendua, gasa eta telefonia hornitzekoek-, lehen aldiz erabiltzeko, edo hala badagokio, 2/2006 Legearen 214 artikulua aipatzen duen jarduerarako udal-lizentzia eskatuko dute, bakoitzaren zerbitzuak behin betikoz kontratatu aurretik.

Eraikinaren edo zati baten bizigarritasuna onartua ulertuko da lehen aldiz erabiltzeko lizentzia eta zerbitzuen horniduraren kontratazioa indarrean mantentzen diren bitartean.

2. Acta de Replanteo:

Antes de iniciar cualquier obra, un Técnico Municipal señalará las alineaciones y rasantes debiendo citar al Director de la Obra para fijarlas sobre el terreno y levantar el acta y planos de este trabajo, que firmarán todos los facultativos presentes. El comienzo de una obra sin que se haya formalizado el acta de replanteo, constituirá, a todos los efectos, un incumplimiento de las condiciones de la licencia.

3. Inspección de las obras:

Cualquier Técnico o Policía Municipal tendrán libre acceso a las obras, mientras en las mismas se trabaje, con el fin de comprobar el cumplimiento de las condiciones de la licencia.

4. Información pública:

El promotor de toda obra que se realice en el término municipal de Oiartzun deberá informar mientras dure la misma de los siguientes apartados:

- Concepto de la obra.
- Promotor de la obra.
- Presupuesto de la obra.
- Fecha de concesión de la licencia.
- Constructor de la obra.
- Dirección de la obra.
- Fecha de finalización de la obra.

La información quedará expuesta en lugar visible en cartel homologado por los servicios técnicos municipales. En los casos de que las obras se realicen en el interior de las viviendas o locales, el cartel podrá colocarse en el interior del portal de entrada al edificio.

*Artículo 110. Primera utilización y habitabilidad de los edificios.*

Sin perjuicio de los expedientes sobre Actividades que hayan de seguirse conforme al ordenamiento jurídico, la solicitud de licencia para la primera utilización de los edificios e instalaciones, además de los requisitos mínimos señalados en el art. 105 deberá ser acompañada por los siguientes documentos:

- Certificado de fin de Obra extendido por el Director de la misma.
- Presupuesto de la liquidación final de la obra firmado por el director de la misma.
- Plano del estado definitivo de las acometidas del edificio a los servicios urbanos generales (agua, saneamiento, alumbrado, electricidad, gas, teléfono, etc.).
- Boletines de la instalación y protocolo de pruebas asociadas, en su caso, de las instalaciones eléctricas y de telecomunicación.
- Las fotografías a que hace referencia el art. 105, serán del exterior de los edificios o de las instalaciones, e irán firmadas al dorso por el titular de la licencia o por el Director de la obra, bajo la manifestación de su concordancia con la realidad.

Las compañías suministradoras de los servicios de energía eléctrica, agua, saneamiento, gas y telefonía exigirán la licencia de primera ocupación o, en su caso, de actividad a que hace referencia el art 214 de la Ley, 2/2006 del suelo, previo a la contratación definitiva de sus servicios respectivos.

La habitabilidad del edificio o de partes de él, se entenderá concedida en tanto se mantengan vigentes la licencia de primera utilización y la contratación de los suministros de servicios.

## VII. TITULUA

### INTERES HISTORIKO ARTISTIKOA DUEN ONDAREAREN BABESA

*111. artikulua. Intereseko elementuak, eraikinak edo multzoak eta horiek babesteko erregimenak.*

1. Babestu beharreko intereseko elementuak, eraikinak edo multzoak HAPO honetako Katalogoan (4.4. dokumentua) zerrendatzen dira.

2. Plan Orokorren Katalogoaren 3. artikuluko 1. eta 2. ataletan aipatzen diren intereseko elementu, eraikin edo multzoen hirigintzako erregulazioak zorrotz bete beharko ditu jada onartuta dauden babes erregimenak.

7/1990 Legearen 12. artikulua aurrikusten duen Babes Erregimena idatzi arte, elementu, eraikin edo multzo horietan baimendutako esku-hartzeek ziurtatu egin behar dute aipatutako ondasunen baloreak behar bezala babesten direla zaharberitze zientifikoko eraikuntza-lanen bidez.

3. Plan Orokorren Katalogoaren 3. artikuluko 3. ataletan aipatzen diren intereseko elementu, eraikin edo multzoen hirigintzako erregulazioak babes erregimenak bete beharko ditu existitzen diren kasuetan. Bestela, jarduketa orok esku-hartzeko irizpide hauek jarraitu beharko ditu:

– Eraikin babestuen edo, hala dagokionean, udalaren iritziz mantendu beharreko elementuen jatorrizko konposizio-ezaugarriak errespetatuko dira.

– Udal lizentzia eskatu aurretik, jabeak edo sustatzaileak kontsulta bat egin ahal izango dio Udalari, aurreikusitako esku-hartzeak finkatutako babes helburuekin bat datozen ikusteko, eta eraikina eta elementuak babesteko betebeharrak zehazki nola gauzatu behar diren jakiteko.

– Xede horrekin, egin beharreko lanaren oinarriko alderdiak behar bezala zehazten dituen aurreproiektu edo agiri bat aurkeztuko dio Udalari. Udalak kontsulta horren aurrean hartzen duen erabakiak ez du baztertuko lizentzia horri dagokion ebazpenean, kasu jakin batzuetan, baldintza gehigarriak zehazteko aukera.

– Dena den, jabeak edo sustatzaileak lizentzia zuzenean eska dezake, baina horrek ez du baldintzatuko aurkeztutako proiektua, benetako eraginkortasuna izateko, udal ebazpenean ezarritako baldintzetara egokitu beharra; bestalde, baimentzeko eskatzen den esku-hartzea ere uka daiteke, baldin eta egi-ten diren txosten teknikoetan ezarritako babes irizpideetara egokitzen ez bada.

## TÍTULO VII

### PROTECCIÓN DEL PATRIMONIO DE INTERÉS HISTÓRICO ARTÍSTICO

*Artículo 111. Elementos, edificios o conjuntos de interés y regímenes de protección.*

1. La relación de elementos, edificios o conjuntos de interés que se declaran bienes a proteger son los relacionados en el Catálogo de este P.G.O.U. (Documento n.º 4.4).

2. La regulación urbanística de los elementos, edificios o conjuntos de interés relacionados en los apartados 1 y 2 del art. 3 del Catálogo del Plan General se remite al estricto cumplimiento de los regímenes de protección ya aprobados.

En ausencia del mismo, hasta que sea redactado el Régimen de Protección previsto en el Art. 12 de la Ley 7/1990, las intervenciones permitidas en ellos deben asegurar la correcta preservación de los valores de los mencionados bienes, mediante intervenciones constructivas de Restauración Científica.

3. La regulación urbanística de los elementos, edificios o conjuntos de interés relacionados en el apartado 3 del art. 3 del Catálogo del Plan General se remite al cumplimiento de los regímenes de protección en los casos de su existencia. En caso contrario toda actuación deberá observar los siguientes criterios de intervención:

– Se considera como objetivo de preservación el respeto a las características originales de composición de los edificios protegidos o en su caso de aquellos elementos que a juicio municipal deban mantenerse.

– Previamente a la solicitud de la correspondiente licencia municipal, el propietario o promotor afectado podrá formular ante el Ayuntamiento una consulta referida a la idoneidad de las intervenciones proyectadas en el contexto de los objetivos de preservación establecidos, así como a la materialización concreta de las obligaciones de preservación de la construcción y de sus diferentes elementos.

– Con ese fin, presentará ante el Ayuntamiento, un anteproyecto o documento que defina con suficiente precisión los aspectos básicos de la obra a realizar. El posicionamiento municipal ante la citada consulta no excluirá la posibilidad de que en la resolución referente a la correspondiente licencia se definan, eventualmente, condiciones adicionales.

– En todo caso, el propietario o promotor podrá optar por formular directamente la solicitud de licencia, sin perjuicio de que el proyecto presentado deba adecuarse, en su caso, para su validez efectiva, a las condiciones establecidas en la resolución municipal, o, de que incluso, la intervención cuya autorización se solicita sea rechazada por no adecuarse a los criterios de preservación establecidos en los informes técnicos que se emitan.

#### 4.2. HIRIGINTZA ARAUDI PARTIKULARRA

##### FITXA URBANISTIKOA: ELI-1 H.I.A. ELIZALDE ERDIA

###### A. *Kokapena eta egungo egoera*

ELI-1 HIA gisa, Elizaldeko hirigunearen erdialdeko eremua mugatzen da. Berezko alde zaharrari eta inguruko muga egin-dako zenbait eraikuntzari dagokio.

Aurreko plangintza orokorreko ELI-1 HIAren mugaketarekin bat egiten du gutxi gora behera.

Eremu honetan, bizitokiko erabilera duten zenbait eraikinekin batera, Oiartzungo herriko monumentu eta zuzkidurazko eraikinen alde nagusia kokatzen da.

ELI-1 HIA eremu orokorraren barnean hirigintzako xedapen zehatzak jasoko dituzten xedapenak gauzatzeko honako azpi-eremuak planteatzen dira:

ELI-1A, aurreko plangintza orokorrak zehazturiko izen bereko azpi-eremuarekin bat egiten duena.

ELI-1B, aurreko plangintza orokorrak zehazturiko izen bereko azpi-eremuarekin bat egiten duena.

ELI-1C, aurreko plangintza orokorrak zehazturiko ELI-1E azpi-eremuarekin bat egiten duena.

ELI-1D, aurreko plangintza orokorrak zehazturiko izen bereko azpi-eremuarekin bat egiten duena.

ELI-1E, Iparralde Etorbideko 5 zk.aren ondoan Plan Orokor honetan zehazten den azpi-eremua da.

ELI-1F, Plan Orokor honetan Arizmendi jauregiaren lurretan mugatua.

ELI-1G, Plan Orokor honetan Arizmendi jauregiaren ondoan mugatua.

ELI-1H, Plan Orokor honetan Rafael Pikabea 10 zk.ko luzatzen eta inguruetan mugatua (ikus X-1.1; X-2.1 eta X-3.1 planak).

###### B. *Hirigintza Antolamendurako Proposamena.*

Oro har, Hirigune Historikoaren hirigintza-egitura eta eraikuntza-multzoa finkatzea planteatzen da, Arauei oso-osorik gehituz indarrean dagoen Birgaitzeko Plan Bereziari dagokion hirigintza-arautzea. Ildo horretan, Birgaitzeko Plan Bereziaren eremua ELI-1-A azpiareari dagokion barruti osora hedatzea proposatzen da, horrela gaur egun Birgaitzeko Plan Bereziaren eremuan sartuta ez dauden eraikin batzuk gehituko baitzaizkio, beren ezaugarri tipologikoengatik Plan Bereziari gehitzea bidezkoa dela irizten baitzaio (Aialde Kalea, Arraskuelarre Kaleko lehen zenbaki bikoiak eta beste eraikinen bat).

Hirigunearen erdialderako bideetako trafikoaren eragina murrizteko egungo estrategia sakontzea proposatzen da, eta planteamendu hori Iparralde Etorbidea pixkanaka herriko kale elkarbanatu gisa birkonfiguratzera hedatzea, gaur egun GI-2134 errepidearen zeharbide eta, batez ere, ibilgailuen lur gaineko aparkaleku izateko funtzioak betetzen baititu. Estrategia horrek, jakina, jarduera osagarriak izan behar ditu sostenguz, hala nola txandakako lurpeko aparkalekuak egokitzea eta hegoalde haranaren hondorantz sartzeko ordezko bide-ardatz berri bat pixkanaka konfiguratzeko.

Beste interbentzio garrantzitsu bat Ibagain parkean berarekin integratutako Kultur Etxe bat eraikitzeko proiektua da. Interbentzio hori ELI-1-D azpiareari dagokio.

ELI-1B, ELI-1C, eta ELI-1E azpiareek garrantzi txikiagoko arautze espezifiko puntualaren alderdiei erantzuten diete.

Proposamenik berriena zera da, Arizmendi parkean lur propioak kalifikatzea Oiartzungo udalerriz guztian dauden zuzkidurazko jarduketan zesarako lurren lorpena borobiltzeko dimentsio txikiagatik edo ezintasun fisikoagatik gauzatu ezin diren

#### 4.2. NORMATIVA URBANÍSTICA PARTICULAR

##### FICHA URBANÍSTICA: A.I.U. ELI-1 H.I.A. ELIZALDE ERDIA

###### A. *Delimitación y situación actual.*

Se delimita como A.I.U. ELI-1 el ámbito central del núcleo urbano de Elizalde correspondiente al Casco Histórico propiamente dicho y a una serie de actuaciones edificatorias realizadas en su perímetro inmediato.

Se corresponde sensiblemente con la delimitación del A.I.U. ELI-1 del anterior planeamiento general.

En este ámbito se concentra buena parte de la edificación monumental y dotacional del municipio de Oiartzun, junto a una serie de edificios residenciales.

Dentro del ámbito general del A.I.U. ELI-1 se definen las siguientes subáreas donde se plantean disposiciones de regulación urbanística específicas:

ELI-1A, con la delimitación idéntica a la subárea del mismo nombre del planeamiento general anterior.

ELI-1B, con la delimitación idéntica a la subárea del mismo nombre del planeamiento general anterior.

ELI-1C, con la delimitación idéntica a la subárea ELI-1E del planeamiento general anterior.

ELI-1D, con la delimitación idéntica a la subárea del mismo nombre del planeamiento general anterior.

ELI-1E, subárea delimitada en este Plan General junto al edificio del n.º 5 de Iparralde Etorbidea.

ELI-1F, delimitada en este Plan General en los terrenos del Palacio de Arizmendi.

ELI-1G, delimitada en este Plan General, contiguo al Palacio de Arizmendi.

ELI-1H, delimitada en este Plan General en la parcela y alrededores de Rafael Pikabea, n.º 10. (Ver planos X-1.1; X-2.1 y X-3.1).

###### B. *Propuesta de ordenación urbanística.*

Se plantea con carácter general la consolidación de la estructura urbanística y el conjunto edificatorio del Casco Histórico, incorporando plenamente a las Normas la regulación urbanística correspondiente al Plan Especial de Rehabilitación vigente. Se propone, en este sentido, la ampliación del ámbito del Plan Especial de Rehabilitación a todo el recinto correspondiente a la subárea ELI-1A, añadiendo de este modo algunos edificios actualmente no incluidos en el ámbito del PER y que, sin embargo, se entiende que por sus características tipológicas procede incorporar al Plan Especial (Aialde Kalea, primeros n.º pares de Arraskuelarre Kalea y algún otro edificio más).

Para la parte central del Casco se propone la profundización de la actual estrategia de minoración del impacto del tráfico viario, extendiendo este planteamiento a la progresiva reconfiguración de Iparralde Etorbidea en una calle urbana de coexistencia, frente a sus funciones actuales de travesía de la GI-2134 y, sobre todo, de aparcamiento de vehículos en superficie. Naturalmente, esta estrategia deberá apoyarse en actuaciones complementarias, como la habilitación de aparcamientos subterráneos de rotación y la progresiva configuración de un nuevo eje viario alternativo de acceso por el Sur hacia el fondo del valle.

Otra intervención relevante es el proyecto de construcción de una Casa de Cultura en el Parque de Ibagain de forma integrada al mismo. Esta intervención corresponde a la subárea ELI-1D.

Las subáreas ELI-1B; ELI-1C y ELI-1E, obedecen a aspectos de regulación específica puntual de importancia menor.

La propuesta más novedosa trata de calificar terrenos propios en el parque de Arizmendi destinados a completar la obtención de suelos de cesión de actuaciones de dotación, situadas en la totalidad del término municipal de Oiartzun, que por su

(edo gauzatzea gomendagarria ez denean) haien eremu propioan. Zentzu horretan mugatzen da ELI-1F azpiarea.

ELI-1G azpiarea mugatzen da, erakusketa areto txiki baten eraikuntzarako, Arizmendi jauregiaren eremutik kanpo, erabilerara publikotarako birgaitze-lanak egiterakoan eraikuntzaren distribuzioan eta egitura orokorrean jarduera oldarkorrik ez egitearren.

Azkenik, ELI-H azpiarea mugatzen da, gaur egun bizitoki erabilera izaera pribatuko ekipamendu sozialera aldatzeko.

*C. Hirigintza araudi orokorra.*

– Azalera A.I.U. ELI-1: 80.002 m<sup>2</sup>

ELI-1A: 31.751 m<sup>2</sup>.

ELI-1B: 525 m<sup>2</sup>.

ELI-1C: 133 m<sup>2</sup>.

ELI-1D: 2.851 m<sup>2</sup>.

ELI-1E: 460 m<sup>2</sup>.

ELI-1F: 1.011 m<sup>2</sup>.

ELI-1G: 842 m<sup>2</sup>.

ELI-1H: 1.511 m<sup>2</sup>.

– Saillkapena: Hiri zoru finkatua ELI-1B, ELI-1C, ELI-1E eta ELI-1H azpiareak izan ezik. Hauek finkatu gabeko hiri zoru bezala klasifikatzen dira.

– Egitura orokorra eta zonakatze orokorra:

E-5 planoaren arabera.

– Errepide sare nagusia (S.O.): 5.761 m<sup>2</sup>.

– Hiriko berdeguneak (S.O.): 7.255 m<sup>2</sup>.

– Ekipamendu kolektiboa (S.O. erdigunea eta Kulturetxea): 27.562 m<sup>2</sup>.

– Bizitoki hirigune-tradizionala: 15.776 m<sup>2</sup>.

– Bizitoki intentsiboa: 21.823 m<sup>2</sup>.

– Garapen txikiko bizitoki: 814 m<sup>2</sup>.

– Espazio libreen eremu homogeenak. Arizmendiko parkea 1.011 m<sup>2</sup>

– Zonakatze akustikoa:

«A» zonan bizitegi-erabilera nagusia da, ELI-1D eta ELI-1H izan ezik, «e» zonan sartzen direnak. Honen helburuak kalitate akustikoari dagokionez E-7 planoan jasotzen direlarik.

– Etxebizitza kopurua:

Finkatutako egungo 452 etxebizitza, lehendik Rafael Pikabea 10 zenbakian daudenak kenduta eta 10 etxebizitza berri, X-2.1 planoaren arabera:

8 ELI-1-B azpi-eremuan.

2 ELI-1-C azpi-eremuan.

– Eraikigarritasuna:

Areako eraikuntzaren multzoan egungo bolumetria eta etxebizitza-kopurua finkatzen dira; hala badagokio, Hirigunea Birgaitzeko Plan Berezia aplikatzearen eta azpiaretarako eraikuntza berriari buruz xedatutako aurreikuspenen ondorioz eraikigarritasuna gehitzeko aukera txikiak salbuetsita.

*D. Hirigintzako kudeaketa eta arautze prozesua.*

– Finkatutako arearen multzoan, hirigintza-kudeaketako unitate gisa konfiguraturako eremuak mugatzen dira. Eremu horietarako, hala badagokio, eraikuntza mantendu edo ordezkatzeko interbentzioak planteatu beharko dira, eraikuntzaren egungo antolamendu bolumetrikoari eta etxebizitza-kopuruari eutsita,

pequeña dimensión o imposibilidad física no puedan o no sea recomendable efectuarse en sus propios ámbitos. En este sentido se delimita la subárea ELI-1F.

Se delimita la subárea ELI-1G, destinada a la construcción de una pequeña sala de exposiciones, fuera del recinto del Palacio de Arizmendi, al objeto de no efectuar actuaciones agresivas en la distribución y estructura general del mismo en el momento de su rehabilitación para usos públicos.

Y, finalmente, se delimita la subárea ELI-1H destinada a cambiar el actual uso residencial por un equipamiento social de carácter privado.

*C. Normativa urbanística general.*

– Superficie A.I.U. ELI-1: 80.002 m<sup>2</sup>.

ELI-1A: 31.751 m<sup>2</sup>.

ELI-1B: 525 m<sup>2</sup>.

ELI-1C: 133 m<sup>2</sup>.

ELI-1D: 2.851 m<sup>2</sup>.

ELI-1E: 460 m<sup>2</sup>.

ELI-1F: 1.011 m<sup>2</sup>.

ELI-1G: 842 m<sup>2</sup>.

ELI-1H: 1.511 m<sup>2</sup>.

– Clasificación: Suelo urbano consolidado salvo las subáreas ELI-1B; ELI-1C, ELI-1E y ELI-1H, que se clasifican como suelo urbano no consolidado.

– Estructura general y zonificación global:

Según plano n.º E-5.

– Red principal de carreteras (S.G.): 5.761 m<sup>2</sup>.

– Zonas verdes urbanas (S.G.): 7.255 m<sup>2</sup>.

– Equipamiento colectivo (S.G. Núcleo central y Kulturetxe): 27.562 m<sup>2</sup>.

– Residencial casco tradicional: 15.776 m<sup>2</sup>.

– Residencial intensivo: 21.823 m<sup>2</sup>.

– Residencial de bajo desarrollo: 814 m<sup>2</sup>.

– Áreas homogéneas de espacios libres. Parque de Arizmendi: 1.011 m<sup>2</sup>.

– Zonificación acústica:

Zona «a» de predominio de uso residencial, salvo las subáreas ELI-1D y ELI-1H que pertenecen a la zona «e», cuyos objetivos de calidad acústica son los reflejados en el plano E-7.

– N.º de viviendas:

452 viviendas existentes consolidadas, una vez deducidas las existentes anteriormente en Rafael Pikabea n.º 10 y 10 nuevas viviendas, según plano n.º X-2.1:

8 en la subárea ELI-1B.

2 en la subárea ELI-1C.

– Edificabilidad:

Consolidación de la volumetría actual y el número de viviendas existente en el conjunto de la edificación del ámbito, salvo las pequeñas posibilidades de incremento de edificabilidad derivadas, en su caso, de la aplicación del Plan Especial de Rehabilitación del Casco y de las previsiones de nueva edificación dispuestas en las subáreas.

*D. Proceso de gestión y regulación urbanística.*

– En el conjunto del área consolidada se delimitan los diferentes ámbitos que se configuran como unidades de gestión urbanística, para los que, en su caso, se deberán plantear intervenciones de mantenimiento o sustitución edificatoria sobre la base de la conservación de la actual ordenación volumétrica de

### X.2.1. planoan jasotako zehaztapenen arabera.

– Antolamendu xehatuaren xede diren areetan, hirigintzako kudeaketa- eta arautze prozesua berariazko araudian xedatutakora egokitu beharko da.

#### E. Hirigintza araudi xehatua

– Hiri egitura:

X-1.1 planoaren arabera

– Zonabanatze xehatua:

X-1.1 eta X-2.1. planoen arabera

– Lursailak zatitzeko baldintzak:

X-2.1 planoan adierazitako eremu guztiek, berez, hirigintzako kudeaketako unitateak osatzen dituzte eta, hirigintza-kudeaketaren onorioetarako, gutxieneko lursail zatiezintzat konfiguratzen dira.

– Eraikigarritasuna eta eraikuntzaren ezaugarriak:

Dagoen eraikuntzaren antolaketa, bolumentria eta etxebizitza-kopurua finkatzen dira, X-2.1 planoaren arabera.

– Urbanizazioa eta hornidurak:

– GI-2134 errepidearen zeharbidea berrurbanizatzea.

– Kultur etxea Ibargain parkean eraikitzea.

– Arizmendi parke publiko gisa irekitzea.

– Egungo parkeak finkatzea (Exabenea, eta abar).

#### F. Ingurumen baldintzatzaileak.

ELI-1 H.I.A. Elizaldeko hirigunearen erdialdeko eremua da, beraz, ingurumenaren aldetik eremu antropizatutako eremua da. Babestu beharreko natura-balio eskasak ditu eta kontserbatze eta babesteko ikuspuntutik baliagarriak izan daitezkeen ekosistemarik ere ez dago. Kutsakorrak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurra daudela nabarmendu daiteke (Inbentarioko 20063-00142, 20063-00220 kodigoak) Nahiz eta jarduketa konkreturik ez planteatu hauen inguruan, eremuaren antolaketan gainjarritako baldintzatzaile bezala kontuan hartu beharko dira.

Hidrogeologiaren ikuspegitik, eremua konplexu Supraurgon-darraren berezko materialen gainean kokatzen da, iragazkortasun gutxiko harearri silizeoak eta lutitak diren bezala. Baditu ere kareharri bioklastikoa eta kareharrien litologiak ere Facies Doggereko silex kretazeoekin, iragazkortasun oso handiko kareharria da. Eta bestetik, iragazkortasun gutxiko Lias tupatsuaren berezko materialak ageri dira, hala nola marga grisak, gehienetan masiboak. Kareharri jurasikoen iragazkortasuna txikia da. Iragazkortasun handiak akuiferoak kutsatzeko arrisku ertaina sortzen du. Faktore hau eremuan garatu litezken eraikuntza proiektuak egiterakoan kontuan izango da.

Prozesu eta arriskuen ikuspuntutik, eremuak litologia ezberdinak sortutako zimurtasun arazo nabarmenak eduki ditzake. Hauek zimenduen diseinuan arazoak sortzen dituzte maiz, elkarren ondoan dauden zapaketan sostengu baldintzak egon daitezkeelako.

Eremua antolatzeko eta garatzeko ezinbestekoa da Ingurumen Iraunkortasuneko Txostenean ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak garatzea, lehendik aipatu diren eraginak gutxitu edo/eta saihesteko. Atentzio berezia jarriko da izaera orokorreko neurri zuzentzaileetan urbanizazio proiektuei dagokionez, paisaiarekiko integrazioan eta babes neurriei dagokionez, eta diseinu berriak egiterakoan baliabideen erabilera ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko dagokionez.

la edificación y del mantenimiento del número de viviendas actualmente existente, según las determinaciones del plano n.º X-2.1.

– En las subáreas objeto de ordenación pormenorizada el proceso de gestión y regulación urbanística se atenderá a lo dispuesto en la normativa específica.

#### E. Normativa urbanística pormenorizada.

– Estructura urbana:

Según plano n.º X-1.1

– Zonificación pormenorizada:

Según planos n.º X-1.1 y X-2.1

– Condiciones de parcelación:

Todos los ámbitos señalados en el plano n.º X-2.1 como tales, constituyen unidades de gestión urbanística y se configuran como parcelas mínimas indivisibles a efectos de gestión urbanística.

– Edificabilidad y características de la edificación:

Se consolida la disposición, la volumetría y el número de viviendas de la edificación existente, según plano n.º X-2.1

– Urbanización y dotaciones:

– Reurbanización de la travesía de la carretera GI-2134.

– Construcción del Kulturetxe en el Parque de Ibargain.

– Apertura pública del Parque de Arizmendi

– Consolidación de los parques existentes (Etxabenea, etc.).

#### F. Condicionantes ambientales.

El AIU Eli-1 se corresponde con el ámbito central del núcleo urbano de Elizalde, por lo que ambientalmente es un ámbito antropizado con escasos valores naturales a proteger ni presencia de ecosistemas valiosos desde el punto de vista de la conservación y protección. Cabe destacar la existencia de suelos que han soportado actividades potencialmente contaminantes (códigos 20063-00142, 20063-00220 del Inventario) Aunque no se plantean actuaciones concretas sobre los mismos, deben de ser tenidos en cuenta como condicionante superpuesto a la ordenación del ámbito.

Desde el punto de vista hidrogeológico el área se localiza sobre materiales propios del complejo Supraurgoniano como son la alternancia de areniscas silíceas y lutitas de permeabilidad baja, presenta también litologías de calizas bioclásticas y calizas con silex cretácicas de la Facies Dogger calizo que presentan permeabilidad muy alta. Por otro lado se presentan también materiales propios del Lías Margoso, como son margas grises generalmente masivas, cuya permeabilidad es baja. Esta permeabilidad muy alta de las calizas jurásicas alta es causante de un riesgo medio a la contaminación de acuíferos. Este factor debe de ser tenido en cuenta en potenciales proyectos constructivos a desarrollar en el área.

Desde el punto de vista de los procesos y riesgos el ámbito puede presentar problemas de rugosidad acusada que generan las diferentes litologías produciendo frecuentemente problemas en el diseño de cimentaciones debido a que pueden existir desiguales condiciones de apoyo en zapatas adyacentes.

Para la ordenación y desarrollo del ámbito es preceptivo el desarrollo de las medidas protectoras y correctoras estipuladas en el I.S.A, cuyo fin es el de paliar y/o aminorar los potenciales impactos referidos con anterioridad. Se prestará especial atención a las medidas correctoras de carácter general en lo relativo a los proyectos de urbanización, en lo referente a las medidas de protección e integración paisajística, así como en lo referente a la máxima eficacia en el uso de los recursos a la hora de los nuevos diseños.

**ELI-1-A HIRIGUNE HISTORIKOA AZPIAREARAKO BERARIAZKO ARAUDIA**

– Hirigunea Birgaitzeko Plan Berezia ELI-1-A azpiarearen osotasunera hedatzea.

**ELI-1-B KINKIRRINKIÑENE AREARAKO BERARIAZKO ARAUDIA**

– Bizitoki-eraikin bat egitea, profil honekin: aparkalekurako erdi-sotoa eta bizitokirako 4 goi-oin, oin bakoitzeko bi etxebizitzarekin. Iparralde etorbideetik, Andreberonikarako sarbidearen ondoan, zuzeneko sarbidea egitea.

– Sestraren gainetik, bizitoki erabilerarako: 870 m<sup>2</sup>.

– Eraikigarritasun fisikoa: 1.330 m<sup>2</sup>.

– Lerrokadurak eta gehienezko neurriak ondoko grafikoaren arabera.

– Zuzkidurazko jarduketa eta zuzeneko egikaritzea, urbanizazio osagarria izango duen eraikuntzako proiektuaren bidez.

– Iparralde etorbideko urbanizazioa eraberritzeko obretan parte hartzea.

**NORMATIVA ESPECÍFICA PARA LA SUBÁREA ELI-1A. HIRIGUNE HISTORIKOA.**

– Extensión del Plan Especial de Rehabilitación del Casco al conjunto del ámbito de la subárea ELI-1A.

**NORMATIVA ESPECÍFICA PARA LA SUBÁREA ELI-1B. KINKIRRINKIÑENE**

– Construcción de un nuevo edificio residencial con perfil de semisótano de aparcamiento y 4 plantas altas residenciales, con dos viviendas por planta. Acceso viario directo desde Iparralde Etorbidea junto al acceso a Andreberonika.


– Edificabilidad sobre rasante para uso residencial: 870 m<sup>2</sup>.

– Edificabilidad física: 1.330 m<sup>2</sup>.

– Alineaciones y dimensiones máximas según ordenanza gráfica adjunta.

– Actuación de dotación y ejecución directa, mediante proyecto de edificación con urbanización complementaria.

– Participación en las obras de reforma de la urbanización de Iparralde Etorbidea.



**ELI-1C AZPIAREA. POSTA ETXEA. BERARIAZKO ARAUDIA**

– Postaetxea eraikuntzan egungo profilaren gaineko oin berri bat eraikitzea ahalbidetuko da, bi etxebizitza berrietarako aukerarekin eta 140 m<sup>2</sup> eraikigarritasun fisikoa handitutako zatiari dagokiona.

– Ondorengo ordenantza grafikoaren arabera lerrokadura eta neurri maximoak.


– Zuzkidurarako jarduera eta egikaritzea zuzena, eraikitze proiektuaren bidez.

**NORMATIVA ESPECÍFICA PARA LA SUBÁREA ELI-1C. POSTA ETXEA**

– En el edificio de Postaetxea se permitirá el levante de una nueva planta sobre su perfil actual, con disposición de dos nuevas viviendas y una edificabilidad física correspondiente a la parte ampliada de 140 m<sup>2</sup>.

– Alineaciones y dimensiones máximas según ordenanza gráfica adjunta.

– Actuación de dotación y ejecución directa, mediante proyecto de edificación.



#### ELI-1D AZPIAREA. KULTURETXEA. BERARIAZKO ARAUDIA

- Kulturetxearentzako zuzkidura eraikina, udal sustapene-koa.
- Zuzeneko egikaritzea, eraikuntza-proiektuaren eta urbanizazio-obretarako proiektu osagarriaren bidez.
- Zuzkidura publikoen exekuzio-jarduketa. Interbentzioaren hirigintza- eta arkitektura-arautzea Oiartzungo Udalak egindako lehiaketa irabazten duen proiektuan finkatutako ezaugarrietara egokituko da edo, bere kasuan, lehiaketaz egokien jotzen den proposamenean.

#### ELI-1E AZPIAREA. NERE TORREA. BERARIAZKO ARAUDIA


- Iparralde etorbidea 5 zenbakiko eraikinaren erdi-sotoaren lurperatzea konpentsatzeko jarduera, aipatu oinaren sarreraren sestra zuzentzen delako. Aparkaleku erabilerarako erdi-soto oin bateko eraikuntza proposatzen da, sarbidea Antxusene bidetik edukiko lukeena.
- Ondorengo ordenantza grafikoaren araberako alineazio eta neurri maximoak.
- Zuzkidurarako jarduera eta egikaritzea zuzena, eraikitze proiektuaren bidez.

#### NORMATIVA ESPECÍFICA PARA LA SUBÁREA ELI-1D. KULTURETXEA

- Edificio dotacional para Kulturetxea de promoción municipal.
- Ejecución directa con Proyecto de Edificación y Proyecto complementario de obras de urbanización.
- Actuación de ejecución de dotaciones públicas. La regulación urbanística y arquitectónica de la intervención se ajustará a las características del proyecto ganador del concurso realizado al efecto por el Ayuntamiento de Oiartzun o, en su caso, a la propuesta que mediante concurso se estime más conveniente.

#### NORMATIVA ESPECÍFICA PARA LA SUBÁREA ELI-1E. NERE TORREA

- Actuación destinada a compensar el soterramiento de la planta semisótano del edificio de Iparralde Etorbidea n.º 5 por rectificarse la rasante de la entrada a dicha planta, proponiéndose un edificio de una planta en semisótano para uso de aparcamiento, con acceso desde Antxusene bidea.
- Alineaciones y dimensiones máximas según ordenanza gráfica adjunta.
- Actuación de dotación y ejecución directa, mediante proyecto de edificación.



**AZPIAREA BERARIAZKO ARAUDIA ELI-1F. ARIZMENDIKO PARKEA**

— Berdegune eta eremu libreterako zoruen bateratze-jarduketa, zera saihesteko: zuzkidurazko jarduketan zuzkidura-karga arintzeko berdegune edo eremu libreterako egokiak ez diren azalaren zesia berarekin ekar ez dezan, eraikuntza eta urbanizazio ordenantzen arabera, edo zuzkidurazko estandarrek bete ezin direnean zuzkidurazko jarduketa propioaren eremu barruan.

**AZPIAREA BERARIAZKO ARAUDIA ELI-1G. ARIZMENDIKO JAUREGIA**

— Erakusketetarako udal promozioko pabilioi baten eraikuntza, Arizmendi jauregiari erantsia, jauregiaren barne distribuzioa ez hipotekatzeko eta ekipamendu erabilerarako birgaitzea errazteko.

— Zuzkidura publikoen exekuzio-jarduketa, eraikitze proiektu eta urbanizatzeko proiektu osagarri bidez.

— Sestra gainetik eraikigarritasuna: 150 m<sup>2</sup> sabai eraikigarria, gehienezko zazpi metroko hormartearekin.

— Profila: Behe oina soilik.

**AZPIAREA BERARIAZKO ARAUDIA ELI-1H. RAFAEL PIKABEA, 10**

— Gaur egun dagoen eraikina ordezkatu edo birgaitu hirugarren adinarentzat zuzkidurako apartamentuen erabilerarako, ustiapen pribatukoak.

— Zuzkidura jarduketa, xehetasun azterketaren, eraikitze proiektuaren eta urbanizatzeko obren proiektu osagarriaren tramitazioaren bidez.

— Sestra gainetik eraikigarritasuna: 1.300 m<sup>2</sup>-

— Profila: Sotoa, behe solairua eta hiru goi solairu.

— Gehienezko okupazioa behe solairuan: 400 m<sup>2</sup>.

— Partzela pribatuaren kanpoaldeko egungo perimetroa urbanizatu beharko da eta partzela horren eta Rafael Pikabea kalearen arteko espazioaren zesia efektiboa egiteko.

— Lerrokadurak eta gehienezko dimentsioak, ondoko ordenantza grafikoaren arabera.

**NORMATIVA ESPECÍFICA PARA LA SUBÁREA ELI-1F. ARIZMENDIKO PARKEA**

— Actuación destinada al agrupamiento de suelos con destino a zonas verdes y espacios libres para evitar que, por motivo de levantar la carga dotacional de actuaciones de dotación, lleve consigo cesiones de superficies no aptas para zonas verdes o espacios libres, según las ordenanzas de edificación y urbanización, o no puedan cumplirse los estándares dotacionales dentro del ámbito de la propia actuación de dotación.

**NORMATIVA ESPECÍFICA PARA LA SUBÁREA ELI-1G. ARIZMENDIKO JAUREGIA**

— Edificación de un pabellón de promoción municipal para exposiciones, anejo al Palacio de Arizmendi al objeto de no hipotecar la distribución interior del palacio y facilitar su rehabilitación para usos de equipamiento.

— Actuación de ejecución de dotaciones públicas mediante proyecto de Edificación y proyecto complementario de obras de urbanización.

— Edificabilidad sobrerasante: 150 m<sup>2</sup> con un máximo de siete metros de crujía.

— Perfil: Planta baja únicamente.

**NORMATIVA ESPECÍFICA PARA LA SUBÁREA ELI-1H. RAFAEL PIKABEA, 10**

— Sustitución o rehabilitación de la edificación existente para uso de apartamentos dotacionales para la tercera edad de explotación privada.

— Actuación de dotación mediante la tramitación de un estudio de detalle, un proyecto de edificación y un proyecto complementario de obras de urbanización.

— Edificabilidad sobrerasante: 1.300 m<sup>2</sup>.


— Perfil: Sótano, Planta Baja y tres plantas altas

— Ocupación máxima en planta baja: 400 m<sup>2</sup>.

— Se deberá urbanizar el actual perímetro exterior de la parcela privada y hacer efectiva la cesión del espacio entre esta y la calle Rafael Pikabea.

— Alineaciones y dimensiones máximas según ordenanza gráfica adjunta.





FITXA URBANISTIKOA: ELI-2 H.I.A. EKIPAMENDU OROKORRAK

A. Kokapena eta egungo egoera

ELI-2 HIA Elizaldeko hirigunearen behealdean ezarrita dauden udalerriko hornidura ekipamendu orokorren multzoari atxikita dago. Zehazki, hauek dira: ikastetxea (ELI-2-A), kiroldegia (ELI-2-B), ikastola (ELI-2-C), hilerria (ELI-2-D) eta igerilekuak (ELI-2-E). Azken bi ekipamendu horien eta kiroldegia eta ikastola artean dagoen bidearen eta hiri-parkerako joera duen espazio libre publikoaren ondoan daude.

Etenkako eremu batetaz ari gara, zeinen mugaketak aurreko plan orokorrarekin nabarmenki bat egiten duen, hilerriaren zabalkunderako lur batzuk eta 1991ko AA.SS. etako 59 eremua gehituz.

B. Hirigintza antolamendu proposamena.

Gaur egun dauden instalazioen hirigintza-antolamendua finkatzea, hilerriaren zabalkundera (ELI-2D) eta antzoki bat edo/eta erabilera anitzeko sala baten hornidura.

Interes orokorreko hornidurazko ekipamenduak eta laguntzakoak direnez gero, beren dimentsionamendua administrazio sektorialaren programa espezifikoetara loturik geratzen da, eta beren kokapena, instalazioak handitzea interesgarritzat jo daitekeen zerbitzuak zentralizatzeko edo deszentralizatzeko estrategiarik loturik.

C. Hirigintza arautegi orokorra.

– AZALERA A.I.U. ELI-2: ELI-2: 74.425 m<sup>2</sup>.

ELI-2-A. Ikastetxea: 12.164 m<sup>2</sup>.

ELI-2-B. Kiroldegia: 9.089 m<sup>2</sup>.

ELI-2-C. Ikastola: 12.166 m<sup>2</sup>.

ELI-2-D. Hilerria: 10.218 m<sup>2</sup>.

ELI-2-E. Igerilekua: 7.811 m<sup>2</sup>.

ELI-2-F. Zaharren Bizitoki: 6.628 m<sup>2</sup>.

– Saillkapena: Finkaturiko hiri-lurra.

– Egitura orokorra eta zonakatze orokorra: E-5 planoaren arabera:

– Errepide-sare nagusia (S.O): 2.271 m<sup>2</sup>.

– Hiriko berdeguneak(S.O): 14.624 m<sup>2</sup>.

– Ekipamendu kolektiboa (S.O): 57.530 m<sup>2</sup>.

– Zonakatze akustikoa:

«a» zonan bizitegi-erabilera nagusia da, ELI-2A, ELI-2C eta ELI-2F izan ezik, «e» zonan sartzen direnak eta ELI-2B azpiarea ere, «c» zonan sartzen dena. Honen helburuak kalitate akustikolari dagokionez E-7 planoan jasotzen direlarik.

FICHA URBANÍSTICA: A.I.U. ELI-2 H.I.A. EKIPAMENDU OROKORRAK

A. Delimitación y situación actual.

El A.I.U. ELI-2 se asigna al conjunto de los equipamientos dotacionales de carácter general del municipio implantados junto al núcleo de Elizalde. Se trata de: Ikastetxea (ELI-2A), Kiroldegia (ELI-2B), Ikastola (ELI-2C), el Cementerio (ELI-2D), las Piscinas (ELI-2E) y la Residencia (ELI-2F), junto al espacio libre con vocación de parque urbano existente entre el cementerio, las piscinas y el viario entre Kiroldegia e Ikastola.

Se trata de un ámbito discontinuo cuya delimitación coincide sensiblemente con el anterior planeamiento general al que se le incorporan unos terrenos destinados a la ampliación del cementerio y el ámbito denominado Área 59 de las NN.SS. de 1991.

B. Propuesta de ordenación urbanística.

Consolidación de la ordenación urbanística de las instalaciones existentes, ampliación del cementerio (ELI-2D) y la dotación de un teatro y/o sala de usos múltiples.

Por tratarse de equipamientos dotacionales y asistenciales de interés general, el dimensionamiento de los mismos queda sujeto a los programas específicos de su administración sectorial, y su localización, a la estrategia, de centralización o de descentralización de servicios, que en caso de ampliación de sus instalaciones pueda considerarse más interesante.

C. Normativa urbanística general.

– SUPERFICIE A.I.U. ELI-2: 74.425 m<sup>2</sup>.

ELI-2A. Ikastetxea: 12.164 m<sup>2</sup>.

ELI-2B. Kiroldegia: 9.089 m<sup>2</sup>.

ELI-2C. Ikastola: 12.166 m<sup>2</sup>.

ELI-2D. Hilerria: 10.218 m<sup>2</sup>.

ELI-2E. Igerilekua: 7.811 m<sup>2</sup>.

ELI-2F. Zaharren Egoitza: 6.628 m<sup>2</sup>.

– Clasificación: Suelo urbano consolidado.

– Estructura general y zonificación global: Según plano n.º E-5:

– Red principal de carreteras. (S.G.): 2.271 m<sup>2</sup>.

– Zonas verdes urbanas. (S.G.): 14.624 m<sup>2</sup>.

– Equipamiento colectivo. (S.G.): 57.530 m<sup>2</sup>.

– Zonificación acústica:

Zona «a» de predominio de uso residencial, salvo las subáreas ELI-2A, ELI-2C y ELI-2F que pertenecen a la zona «e» y la subárea ELI-2B que pertenece a la zona «c», cuyos objetivos de calidad acústica son los reflejados en el plano E-7.

- Eraikigarritasuna:
- ELI-2A, ELI-2B eta ELI-2C azpiareak:
- Sestra gaineko eraikigarritasuna: 0,75 m<sup>2</sup>s.e./m<sup>2</sup>.
- ELI-2D azpiarea:
- Sestra gaineko eraikigarritasuna: 0,05 m<sup>2</sup> s.e./m<sup>2</sup>.
- ELI-2E azpiarea:
- Sestra gaineko eraikigarritasuna: 0,10 m<sup>2</sup>s.e./m<sup>2</sup>.
- ELI-2F azpiarea:
- Sestra gaineko eraikigarritasuna: 0,90 m<sup>2</sup>s.e./m<sup>2</sup>.

*D. Hirigintzako kudeaketa eta arautze prozesua.*

- Dauden instalazioak finkatzeko prozesua.
- Zuzeneko jarduna, instalazioak hobetu edo zabaltzeko interbentzioetarako.

*E. Hirigintzako araudi xehatua.*

- Hiri egitura:
- X-1.1 planoaren arabera
- Zonabaratze xehatua:
- X-1-1 eta X-2-1 planoen arabera
- Lursailak zatitzeko baldintzak:
- Azpiarea bakoitzak lursail bakarra osatzen du.
- Eraikuntza aprobetxamendua eta eraikuntzaren ezaugarriak:

- ELI-2-A, ELI-2-B eta ELI-2-C azpiareak:
- Sestra gaineko eraikigarritasuna: 0,75 m<sup>2</sup> s.e./m<sup>2</sup>
- Gehienezko okupazioa: %50.
- Gehienezko profila: BO+III.
- ELI-2-D azpiarea:
- Sestra gaineko eraikigarritasuna: 0,05 m<sup>2</sup> s.e./m<sup>2</sup>.
- ELI-2-E azpiarea:
- Sestra gaineko eraikigarritasuna: 0,10 m<sup>2</sup> s.e./m<sup>2</sup>.
- ELI-2-F azpiarea:
- Sestra gaineko eraikigarritasuna: 0,90 m<sup>2</sup>s.e./m<sup>2</sup>.
- Gehienezko okupazioa: %50.
- Gehienezko profila: S+BO+III.

*F. Ingurumen baldintzatzaileak*

ELI-2 H.I.A.k Elizaldeko hirigunearen ondoan kokatutako udalaren zuzkidura ekipamenduen multzoa hartzen du. Beraz antropizazio maila handiko eremua da. Babestu beharreko natura-balio eskasak ditu eta kontserbatze eta babesteko ikuspuntutik baliagarriak izan daitezken ekosistemarik ere ez dago. Bai hilerria eta baita igerilekuen instalazioak handitu nahi izanez gero kontuan hartu beharko da harizti azidofilo baso mistoko formazio txikiak daudela, eta, ahal den neurrian errespetatu eta babestu beharko direla. Naturako intereseko habitatei dagokionez, Oiartzungo udalerrian hain berezkoan diren altuera gutxiko sega-belardi urriak daude, lehentasunezko habitata ez izan arren beraiek mantentzea interesgarria izanik. Kasu honean, hiri ingurua izanda interesa dute paisaiaren aldetik dituzten propietateengatik.

Hidrogeologiaren ikuspegitik, eremua Konplexu Lias tupa-tuaren berezko materialen gainean kokatzen da, hala nola marga grisak, gehienetan masiboak. Hauen iragazkortasuna txikia da, beraz akuiferoak kutsatzeko arriskua oso txikia da.

Prozesu eta arriskuen ikuspuntutik, eremuak zimurtasun arazo nabarmenak eduki ditzake, hau litologia ezberdinak or-

- Edificabilidad:
- Subáreas ELI-2A, ELI-2B y ELI-2C:
- Edificabilidad sobre rasante: 0,75 m<sup>2</sup>t.e./m<sup>2</sup>.
- Subárea ELI-2D:
- Edificabilidad sobre rasante: 0,05 m<sup>2</sup>t.e./m<sup>2</sup>.
- Subárea ELI-2E:
- Edificabilidad sobre rasante: 0,10 m<sup>2</sup>t.e./m<sup>2</sup>.
- Subárea ELI-2F:
- Edificabilidad sobre rasante: 0,90 m<sup>2</sup>t.e./m<sup>2</sup>.

*D. Proceso de gestión y regulación urbanística.*

- Proceso de consolidación de las instalaciones existentes.
- Actuación directa para intervenciones de mejora o ampliación de las instalaciones.

*E. Normativa urbanística pormenorizada.*

- estructura urbana:
- Según plano n.º X-1.1.
- zonificación pormenorizada:
- Según planos n.º X-1.1 y X-2.1.
- condiciones de parcelación:
- Cada subárea constituye una parcela única.
- Edificabilidad y características de la edificación:

- Subáreas ELI-2A, ELI-2B y ELI-2C:
- Edificabilidad sobre rasante: 0,75 m<sup>2</sup>t.e./m<sup>2</sup>.
- Ocupación máxima: 50%.
- Perfil máximo: PB+III.
- Subárea ELI-2-D:
- Edificabilidad sobre rasante: 0,05 m<sup>2</sup>t.e./m<sup>2</sup>.
- Subárea ELI-2-E:
- Edificabilidad sobre rasante: 0,10 m<sup>2</sup>t.e./m<sup>2</sup>.
- Subárea ELI-2-F:
- Edificabilidad sobre rasante: 0,90 m<sup>2</sup>t.e./m<sup>2</sup>.
- Ocupación máxima: 50%.
- Perfil máximo: S+PB+III.

*F. Condicionantes ambientales.*

El AIU Eli-2 se corresponde el conjunto de equipamientos implantados junto al núcleo de Elizalde, por lo que ambientalmente se trata de un ámbito con un alto grado de antropización, que presenta escasos valores naturales a proteger ni presencia de ecosistemas valiosos desde el punto de vista de la conservación y protección. Deberán tenerse en cuenta a la hora de la posible ampliación tanto del cementerio como de las instalaciones de las piscinas la presencia de pequeñas formaciones de robledal acidófilo bosque mixto, los cuales deberán ser respetados y protegidos en la medida de lo posible. En lo que a hábitats de interés naturalístico se refiere el ámbito presenta prados pobres de siega de baja altitud, hábitat no prioritario pero sí de interés para su conservación, muy característicos del municipio de Oiartzun. Al tratarse en este caso de un entorno urbano, resultan de interés por las propiedades paisajísticas de los mismos.

Desde el punto de vista hidrogeológico el área se localiza sobre materiales propios del Lías Margoso, como son margas grises generalmente masivas, cuya permeabilidad es baja hecho que origina un riesgo muy bajo a la contaminación de acuíferos.

Desde el punto de vista de los procesos y riesgos el ámbito puede presentar problemas de rugosidad acusada la cual se

tzen dituzten irregulartasunei dagokie eta zimenduen diseinuan arazoak sortzen dituzte maiz, elkarren ondoan dauden zapatean sostengu baldintza desberdinak egon daitezkeelako. Hori kontuan hartu beharko da eremuan aurreikusitako eraikitze-proiektuetan.

Eremua antolatzeko eta garatzeko ezinbestekoa da Ingurumen Iraunkortasuneko Txostenean ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak garatzea, lehendik aipatu diren eraginak gutxitu edo/eta saihesteko. Atentzio berezia jarriko da izaera orokorreko neurri zuzentzaileetan urbanizazio proiektuei dagokionez, paisaiarekiko integrazioan eta babes neurriei dagokionez, eta diseinu berriak egiterakoan baliabideen erabileran ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeari dagokionez.

#### FITXA URBANISTIKOA: ELI-3 H.I.A. ELIZALDE MENDEBALDEA

##### A. *Kokapena eta egungo egoera*

ELI-3 HIA Elizaldeko hirigunearen mendebaldean kokatutako dentsitate txiki eta ertaineko bizitoki-areei atxikita dago. Area horiek GI-2134 errepidearen eta Elizaldetik Astigarragarantz irteteko gaur egun Rafael Pikabea hiribidea den errepide orokorraren ondoan daude.

Batzuetan familia bakarreko etxebizitez osatutako eraikin bakanduen tipologiak ikusten dira, sestra gaineratik 250 m<sup>2</sup> baino gehiagoko eraikigarritasuna dutenak.

Gehienbat, aurreko planeamenduko ELI-3 H.I.A.rekin bat egiten du, zeini iparraldetik hainbat lur erantsi zaizkion Urkabeko bidea Iparralde etorbidearekin lotzeko Antxusene bidetik. Guztiak hiri eta bizitokiko areak dira.

la guztiz finkatutako hiri egitura da honako azpiareak izan ezik: ELI-3A Urkabe Baita, ELI-3B Posta, ELI-3C Muebles Mosa, ELI-3G eta ELI-3I ?Urkabe Baitatik banandua?, non, ELI-3A azpiarearekin batera, berariazko arautegiak planteatzen diren, aurreko paragrafoan adierazitako bide lotura egiteko helburuarekin. Mugatutako gainontzeko azpiareetan, ELI-3D, ELI-3E eta ELI-3F, egokitze edo eraikitzeke dauden gerakinentzako arautegi zehatz bat jasotzen da.

##### B. *Hirigintza antolaketarako proposamena.*

Gaur egun dagoen bizitoki-garapena finkatzea proposatzen da. Azpiarea jakin batzuetan hirigintza-arautze espezifiko txiki batzuk baino ez dira planteatzen, GI-2134 errepideko trafikoa-ren abiadura gutxitzeko eta oinezkoen segurtasuna handitzeko neurriak hartzea eta Iparralde etorbidea eta Urkabeko bidearen lotura GI-2134 errepidearen iparraldeko finketara sarrera-irteera zuzenak ekiditeko.

Etxebizitzak banatzeko udal ordenantzatik at, salbuespen gisa, bakartuta dauden familia bakarreko eraikinak bi etxebizitzetan banatzeko aukera kontuan hartzen da, D atalean adierazten diren baldintzetan. «Hirigintza kudeatzeko eta arautzeko prozesua», finkatutako eraikinak dituzten lur-zati batzuen eraikigarritasun txikia konpentsatzeko.

##### C. *Hiri-arautegi orokorra*

– Azalera H.I.A. ELI-3: 196.368 m<sup>2</sup>

ELI-3A: UrkabeBaita.Ekipamendua: 6.158 m<sup>2</sup>.

ELI-3B: Posta: 1.441 m<sup>2</sup>.

ELI-3C: Muebles Mosa: 8.248 m<sup>2</sup>.

ELI-3D: 519 m<sup>2</sup>.

ELI-3E: 1.274 m<sup>2</sup>.

ELI-3F: 4.960 m<sup>2</sup>.

ELI-3G:Txoko Txikiko Gaina: 7.238 m<sup>2</sup>.

refiere a las irregularidades que generan las diferentes litologías produciendo frecuentemente problemas en el diseño de cimentaciones debido a que pueden existir desiguales condiciones de apoyo en zapatas adyacentes, lo que debe de ser tenido en cuenta a la hora de los proyectos de construcción previstos en el ámbito.

Para la ordenación y desarrollo del ámbito es preceptivo el desarrollo de las medidas protectoras y correctoras estipuladas en el I.S.A, cuyo fin es el de paliar y/o aminorar los potenciales impactos referidos con anterioridad. Se prestará especial atención a las medidas correctoras de carácter general en lo relativo a los proyectos de urbanización, en lo referente a las medidas de protección e integración paisajística, así como en lo referente a la máxima eficacia en el uso de los recursos a la hora de los nuevos diseños.

#### FICHA URBANÍSTICA: A.I.U. ELI-3 H.I.A. ELIZALDE MENDEBALDEA.

##### A. *Delimitación y situación actual*

El A.I.U. ELI-3 se asigna al conjunto de las áreas residenciales de baja y media intensidad que se localizan al Oeste del núcleo de Elizalde, apoyadas sobre la carretera GI-2134 y sobre la Avenida de Rafael Pikabea.

En ocasiones se presentan tipologías de edificios aislados de vivienda unifamiliar que superan los 250 m<sup>2</sup> de edificabilidad sobre rasante.

